ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2007ko uztailaren 16a > Astelehena > III. urtea > 154. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ekonomiak derrigortzen gaitu kanpora joatera, hemengoa gordetzeko"

**Xabier Mugartza**
Ulma taldeko presidentea > 06



**ESKORIATZA**
**Leintz Ibarraundi Fundazioaren gainean hausnartuko du Udalak** > 13

**ARAMAIO, ELGETA**
**Alkatearen soldata jaistea erabaki dute bi herriotako Udalbatzek** > 14

**ANTZUOLA**
**Atzeratu egin da Bergarara arteko bidegorriaren proiektua** > 14

**JAIAK**
**Santa Marina, Basalgo eta Goimendi auzoetako jaiak** > 27

**OSASUNA** > URA

# Bueltatu dira bainulariak Landara, Osasun Sailak ura egoki ikusi ondoren

**ANALISIA** Osasun Sailak joan den egubakoitzean baimendu zuen Landan bainatzea, urak aztertu ondoren

**SALMONELLA** Aurreko astean, bainatzea debekatu zuen Osasunak, uretan salmonella zegoelako

**NORMAL** Aste bukaeran, berriz urtegian bainua hartzen ibili dira hainbat lagun, baita debagoiendarrak ere > 04

## G2a

### Euskal ezkontza tradizionala, 1882. urtekoa, antzeztu dute Antzuolan

Antzuolako jaietan, berrikuntza sartu dute aurten, Anelkar gobernuz kanpoko erakundearen eskutik. Izan ere, antzinako ezkontza egin dute. 1882. urtera bueltatu dira herrian, Pedro Martin de Olabarria eta Josefa Maria Madariagaren arteko lotura egiteko. Egubakoitzean, hitzarmena sinatu zuten, eta atzo izan zen ezkontza. Gero, jaialdia ere egin zuten, janari eta edariarekin; musika ere ez zen falta izan. Giro polita eduki dute herriko jaietan antzuolarrek. Atzo amaitu ziren ospakizunak. > 23-24



**EZKONTZA** Apaiza, senar-emaztegaiak (atzeko planoan) ezkontzen.

JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**KONTSUMOA** > ELIKAGAIAK

## Eroski, euskal jakiak bultzatzen

Kalitatezko euskal elikagaiak bultzatzeko hitzarmena egin dute Jaurlaritzak eta Eroskik. Besteak beste, Eroski taldeak helburutzat hartu du, sektoreka, taldearen salmentak merkatu horretan hazi direnaren %5etik %10era gehitzera. > 05

**BAKEA** > HEZKUNTZA JARDUNALDIAK

## Bake hezkuntza berbagai asteon Arantzazun

Arantzazuko Gandiaga Topagunean dagoen Baketik zentroak Bake Hezkuntzarako 25. Nazioarteko Institutua hartu du asteon. Domekatik uztailaren 21era bitartean, 30 herrialdetako 70 adituk bake hezkuntzan dituzten esperientziak partekatuko dituzte, identitatea gai nagusitzat hartuta.

Elkarlanean, kultura aberastasunean eta ikasketan oinarrituko dira, eta helburua da bakegintzaren alorrean dihardutenen artean komunitatea sortzea.

Jardunaldiak itxiak badira ere ,uztailaren 20an, mahai-inguru irekia egongo da, joan nahi dutenendako. > 02-03

**KIROLAK** > TXIRRINDULARITZA

## Mikel Nieve, txapeldun Elgetan

Caja Rural taldeko Mikel Nievek irabazi zuen atzo 23. Elgetako Mendi Kriteriuma. Azken kilometroetan Azpiru Ugarte taldeko Oscar Puyolekin lehia estua izan ondoren, bakarrik iritsi zen Elgetako helmugara, 3:21:31ko denbora eginez. > 18

**BAKEGINTZA** > TOPAKETAK

# Bakerako bidean, hezkuntza esperientziak elkartrukatuz

**ADITUAK** Bake hezkuntzan adituak diren 70 lagun Arantzazura etorri dira 30 herrialdetatik, ideiak partekatzera

**HEZKUNTZA PLANAK** Eusko Jaurlaritzak bakerako, elkarbizitzarako eta giza eskubideen gaineko hezkuntza zabaltzeko plana garatu du

**LEHENTASUNAK** Identitatea gai hartuta, bake hezkuntzak zein lehentasun izan beharko lituzkeen hausnartzen dihardute jardunaldietan




**ADITUAK** Ezkerretik hasita, Jonan Fernandez, Mireia Uranga, Jon Landa, Betty Reardon, Tontxu Campos, Janet Gerson eta Tony Jenkins. IRATI AGIRREAZALDEGI

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Domekan hasi eta uztailaren 22ra bitartean, bake hezkuntzari buruzko topaketak egiten dihardute Arantzazuko Baketik zentroan. Munduko 30 herrialdetako 70 aditu daude bertan, eta identitatea hartu dute jardunaldiotako ardatz.

Bake Hezkuntzaren Nazioarteko Institutua antolatzen laguntzeaz arduratu dira aurten Arantzazuko Baketik Zentroa eta New Yorkeko Columbiako Unibertsitateko Teachers College-ko Bake Hezkuntzako Zentroa.

1982an sortu zen Bake Hezkuntzaren Nazioarteko Institutua, elkarlanaren bidez bake edukiak landu, eta lan horretan jarduten duten profesionalen artean lankidetza sarea sortzeko asmoz. Bake hezkuntzan aditua den Mireia Urangak azaldu digunez, "aurten, jardunaldiok egiten diren 25. urtea da. Urtero egiten dira munduko lekuren batean. Astebetez, hainbat herrialdetako jendea elkartzen da, hausnarketa egiteko eta praktikak eta hainbat motako esparruak konpartitzeko bake hezkuntzaren inguruan".

Ordutik hona, urtero, munduko leku baten elkartu dira, eta aurten, Arantzazu da jardunaldion lekuko. Mireia Urangaren esanetan, topaketak Arantzazuan egiteak badu bere arrazoia: "Euren ideia zen Europan egitea, azken 10 urteetan ez dutelako hemen egin. Proposatu ziguteneаn, esan genuen momentu berezia zela, eta aprobetxatu egin behar genuela momentu honi indarra emateko. Bitartean, gauzak okertu egin dira, baina orain behar handiagoa daukagu hausnartzeko; izan ere, bai gure herrian eta bai munduan, betirako, bakea topatzeko bidea aurkitu behar dugu".

**BAKERAKO TRANTSIZIO PROZESUA**

Gandiaga Topagunean, jardunaldien hasieran, Jonan Fernandez Baketikeko zuzendariak argi utzi nahi izan zuen, Euskal Herrian, bakea, indarkeriaren amaiera eta bizikidetzaren amaiera atzeraezinak direla. "Nahiz eta su-etena apurtu den, bakerako trantsizio prozesuan gaudela baieztatzen jarraitzen dugu", esan zuen.

Hau gaineratu zuen Fernandezek: "Borroka eta bake itxaropenezko testuinguru honetan, komeni da jakitea bake hezkuntzarena ez dela gure hezkuntza komunitatearendako kontzeptu berria, eta azken 15 urteotan programa, unitate didaktiko, bizikidetza plan eta beste hainbat ekimen garatu direla gai horren barruan". Gaineratu zuen hezitzaile asko nahastuta dagoela, oraindik ez dakitelako bake hezkuntzarako proiektu bat nondik hasi, ezta nola aurrera eraman ere.

Fernandezek, bake hezkuntzaren barruan, hiru ikasketa proposatu zituen, horietako bat norbere kontzientziari entzutea: "Gatazka ez da gugandik kanpo dagoen zerbait, barne adierazpena baizik. Horregatik da beharrezkoa norberak gatazkarekin duen harreman pertsonala berrikustea eta lantzea. Ezinezkoa da etikoki jokatzea ez badiogu gure kontzientziari sakonetik entzuten", esan zuen.

**JAURLARITZAREN LEHENTASUNA**

Jon Landa Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendariak esan zuen bake hezkuntza eta, oro har, giza eskubideen hezkuntza Eusko Jaurlaritzarendako lehentasunezko gaia dela: "Euskal gizarteak inoiz berradiskidetzea lortzekotan, bake hezkuntzaren bidetik lortu beharko du, justizian oinarritako bidean sinesten dugun neurrian. Bizi ditugun indarkeria kolektiboek, orain dik ere bizitzen ari garenak, zauri kolektiboak, sakonak, eragin dituzte gure gizartean eta, horren aurrean, bake hezkuntza da eta izango da hurrengo urteetan halabeharrezko tresna, hurrengo belaunaldiek zauriak itxi ditzaten eta zauri berriak sortu ez daitezen".

Hezkuntza sailburu Tontxu Camposek bake hezkuntza, elkarbizitza eta giza eskubideak batzen dituen Eusko Jaurlaritzaren plangintza izan zuen hizpide: "Programaren helburua da ikastetxeetan eskubide, betebehar eta pertsonen duintasunarekiko errespetuan oinarritutako harremanak lantzea. Horretarako, hartu beharko dira hezkuntza irizpide gizatiarrak, eta gatazken eraldaketa etikoa bultzatuko dutenak".

MAHAI-INGURU IREKIA

## Afganistan, Ukrainia eta Israelgo esperientziak, jendaurrean

Jardunaldiak, berez, itxiak diren arren, uztailaren 20an, egubakoitza, Afganistan, Ukrainia eta Israelgo esperientziak azalduko diren mahai-inguru publikoa egingo dute. 11:30ean hasiko da Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

*Identitatea, interdependentzia eta indarkeria gabeko eraldaketak; hezkuntzaren lehentasun praktikoak bakeranzko trantsizioetan* izenburupean, hiru lagun arituko dira: Sakeena Yacoobi Ikaskuntzarako Afganiar Institutuaren fundatzaile eta zuzendaria da. Bake hezkuntza eta giza eskubideak sartu ditu eskola curriculumetan, eta Afganistan eta Pakistango emakumeekin egiten den lanean; Olena Suslova Ukrainiako Women's Information Consultative Center-eko ordezkaria da. Paulo Freire pentsalariaren eta indarkeriarik ezaren ikuspegietan oinarritutako bere hezkuntza programa Sobiet Batasuna zeneko hainbat errepublikatan lantzen ari da; eta Israelgo Faisal Azaizak Jewish Arab Center-Haifako Unibertsitateko-ak hezitzaile judutar eta arabiarren arteko lankidetza proiektuetan lan egiten du, bai maila akademikoan, bai zerbitzu publikoetan ere. Bakoitzak bere herrialdean bake hezkuntzaren barruan bizi izandako esperientziak azalduko ditu jendaurrean.

Egubakoitzeko mahai-ingurua irekia den arren, komeni da asistentzia aurretik baieztatzea, posta elektroniko bidez (*arantzazu@baketik.org*) edo 943 25 10 05 zenbakira deitutа.

**"Gatazka ez da gugandik kanpo dagoen zerbait, barne adierazpena baizik"**

**"Bakearen kulturan, gauzak aldatu egin behar dira, ez daudenetan utzi"**

Bestalde, bake hezkuntzan adituei hau esan zien: "Zuek hemen egotea aukera ezin hobea da guretzat, gure herrirako eratu ditugun hezkuntza asmoen oreka eta koherentzia, eta horretarako abian jarri ditugun eta jarriko ditugun bide politikoak eta programak neurtzeko".

**PARTAIDETZA MUGATUA**

180 lagunek eman zuten izena jardunaldietarako, baina partaide kopurua mugatu nahi izan dute, horrela, harremanak sendotzea eta elkarrekintza pertsonala sortzea errazagoa baita. "Partaide kopurua mugatua da, jende horrek elkarlanean jarraitzea eta talde bat sortzea nahi delako. Hortaz, ez da ohiko kongresu bat; denok gara adituak, denok ikasten dugu elkarrengandik, eta topaketa hauek bukatu ondoren ere, lanean jarraitu nahi dugu batera", esan digu Mireia Urangak.

Partaideen artean, Dana Brown aurkitu genuen. Argentinako Servicio de Paz y Justicia gobernuz kanpoko erakundearendako dihardu lanean eta, bake hezkuntzari dagokionez, bere lana zein den azaldu zigun: "Paraguayko talde batekin jardun dut lanean. Gizonezkoak direnez, arlo militarrarekiko loturatik askatzea da euren helburua. Desmilitarizazio eta demokratizazio prozesua oso motela da. Nik euren lana AEBetan egiten denarekin alderatu dut".

Baina Buenos Airesen dihardu orain Dana Brownek, eta gazteekin biolentziarik eza lantzeko tailerrak egiten ditu; "Euskal Herriko errealitatearekin alderatuz gero, oso ezberdina da Buenos Aireseoa, baina gatazka munduko edozein txokotan aurki daiteke gaur egun. Latinoamerikako hiri handietan biolentzia handia dago, txirotasunak, ustelkeriak eta eguneroko krimenek eraginda, batik bat. Hortaz, Buenos Airesko auzoetan, batik bat, kalean bizi diren ume eta gazteekin bake hezkuntza lantzen da, etorkizunean gatazkan eror ez daitezen".

Bake hezkuntzarako errezeta magikorik dagoen galdetuta, ezetz esan digu Dana Brownek: "Ez dago errezeta bakarra. Hori da, hain zuzen ere, jardunaldion aberastasuna: elkarren esperientzia eta erronketatik ikastea, errezeta, galdera eta erantzun asko sor baitaitezke guztion artean, eta hori da nik bilatzen dudana: ideien arteko elkartrukea".

**IDENTITATEA, GAI**

Urtero, gai bat aukeratzen dute ardatz gisa, eta aurten, identitatea izan da hori. Jardunaldietako partaideak herrialde eta errealitate askotako eta desberdinetakoak direnez, aste osoan barrena, identitateari buruzko ikuspegi eta jokaera ezberdinak ezagutuko dituzte.

Mireia Urangak honela azaldu digu zergatik aukeratu duten identitatea: "Gai modura aukeratu genuen identitateak sortzen dituen erronkak, interdependentzia eta bortizkeriarik gabeko aldaketak. Bakearen kulturan gauzak aldatu egin behar dira; bakea ez da gauzak daudenetan uztea. Baina galdera hau da: nola egin aldaketa horiek edozein gizartetan, bortizkeriarik gabe? Egiten dugun beste galdera bat da bakerako trantsizioan zein diren lehentasunak. Gai asko landu daitezke, baina bake bila dabilen gizarte batean, bake hezkuntzak zein lehentasun izan beharko lituzkeen jakitea da kontua, eta horretan oinarrituko dugu aurtengo hausnarketa".

Baketikeko Bake Hezkuntzaren Nazioarteko Institutuaren koordinatzaile Mireia Urangak dio: "Bake kultura bat ez da bakarrik bortxakeriarik ez egotea, baizik eta denok bizitzarako duintasunezko baldintza batzuk izatea".

Bakea eta hezkuntza bat eginda, horiek izango dira, aste guztian barrena, hizketarako gaiak; batzuen gogoetak, beste batzuen hitz eta hausnarketekin nahastuta, bake hezkuntzarako bidean pauso berriak emateko aukerak errazteko.

**Betty Reardon** > Bake Hezkuntzaren Nazioarteko Institutuaren sortzailea

# "Bake hezkuntzan, jendeari hausnarraraztea eta burua irekia izatea da garrantzitsuena"

I.A. > OÑATI

**Bake hezkuntzan, izen handiko emakumea da Betty Reardon. Aitzindaria izan zen bake hezkuntzaren teoriaren garapenean, eta berak sortu zuen Bake Hezkuntzaren Nazioarteko Institutua, gaiaren gaineko kezka nabarmena zela ohartuta. Egunotan, Arantzazun da, Gandiaga Topagunean, bere esperientzia gainontzeko adituekin partekatzen.**




I.A.

**Bake hezkuntzan, zuk egindako lanak eragin handia du politikako zein gizarteko liderren, irakasleen, ikasleen eta abarren artean. Zer dela eta hainbesteko eragina? Zertan datza zure lana?**

Ez dakit, benetan, hain eraginkorra den nire lana, iruditzen zaidalako bake askorik ez daukagula une honetan. Baina bake hezkuntzan lanean hasi nintzenean, ohartu nintzen beharra handia zela, jendea zerbaiten bila zebilela bakearen bidetik, baina ez zekiela nola heldu gaiari. Hortaz, noraezean zebilen jende horri baliabideak eskaintzeak egin nau, beharbada, eraginkor bezain ezagun, alor honetan.

**Zein faktore dira beharrezkoak bake hezkuntza egokirako?**

Elementurik garrantzitsuena da aukerak zabaltzea, burua ideia berrietara irekia izatea. Izan ere, jendea, askotan, ez da konturatzen inguruan dituen aukeretaz, eta gauzak oso modu mugatuan ikusten ditu.

**Zein metodo erabiltzen dituzu bake hezkuntzarako?**

Helburuetariko bat da pentsaraztea, hausnarraraztea; hortaz, garrantzitsua da jendeak erantzuna eman aurretik ikertzeko moduko galderak sortzea. Hezkuntzan, askotan, erantzunak ematen dira, gauzak nola diren azaltzen da, horren atzean dagoen guztiari buruz hausnarketa egiteko inolako aukerarik eman gabe.

**Zein dira erronkarik nagusiak munduan, gaur egun, bakearendako?**

Esnatzea, gertatzen dabilenaz konturatzea, hausnartzea eta ausart azaltzea dira erronka nagusiak. Jendea ez da konturatzen benetako arazoez; beroien zergatiez ere, apenas dute ezagutzarik. Hortaz, adorea izan eta dauden aukerak bilatu eta pentsatu behar dira, gero gogoeten ondorioetaz konturatzeko, hausnarketatik ekintzetara pasatzeko. Ekintzak bakarka egin daitezke, baina ohartu behar gara zein diren bakoitzaren mugak eta, zenbaitetan, elkarlanean eta modu interaktiboan ekin behar da.

**"Esnatzea, gertatzen ari denaz konturatzea eta ausart azaltzea dira bakerako erronkak"**

**"Garrantzitsua da ikastea, alde ezkorra ikustea, aukera baikorrei atea zabalduz"**

**Euskal Herriko egoerari erreparatuta, zein erronka ditugu euskaldunok, bake hezkuntzari dagokionez ?**

Jardunaldion aurkezpenean, Eusko Jaurlaritzako eta Baketikeko ordezkariek esandakoaren arabera, bide onetik zoaztela iruditzen zait. Oinarrizko baloreak azpimarratu dira, bereizketaren gainetik giza duintasuna eta giza eskubideak ardatz hartuta, eta hori da, hain zuzen ere, egin behar dena. Bestalde, gogoeta egiten eta eginarazten jarraitu behar duzue. Niri hemen esandakoek hainbat gauza pentsarazi dizkidate, eta hori da bidea eta erronka nagusia: jendeari hausnarketa eragitea bakea moduko gai baten inguruan, alegia.

**Adituok bake hezkuntzaz berbetan diharduzue. Baina herritar arruntek zer egin beharko lukete bake hezkuntzari euren apurra emateko?**

Ikasten jarraitu behar dugu denok, uneoro. Burua zabalik izan behar dugu ikasteko. Badirudi denbora tarte batean ikasten dugula, eta, hortik aurrera, irakasteko edo ikasitakoa bere horretan, aldatu gabe, zabaltzeko baino ez gaudela. Garrantzitsua da ikastea, ikertzea, galdetzea. Gainera, ez dugu gauzen alderdi ezkorrarekin bakarrik geratu behar. Alde ezkorra ikusi eta hortaz jakin behar dugu, jakina, baina, betiere aukera baikorrak zabalduz.



**OSASUNA** > SALMONELLA

# Landan bainatu da berriz jendea, Osasun Sailak hala baimenduta



**JENDEA** Landako urtegian, jendea bainua hartzen. GOIENKARIA

Landako urtegian bainatzeko aukera dago berriro, Osasun Sailak salmonella bakteriaren ondorioz agindutako debekua kendu ondoren

**A. B./L. K.** > BERGARA

Egubakoitzaz geroztik, berriz dago Landan bainatzeko aukera. Izan ere, astelehenero, Eusko Jaurlaritzako osasun sailak uraren lagin bat hartzen du, bere egoera aztertzeko, eta egubakoitzetan ematen dituzte analitikaren emaitzak; bada, joan den egubakoitzean, ura bainatzeko moduan zegoela esan zuen Osasun sailak.

Hala, joan den aste bukaeran, berriz normal ibili dira herritarrak Landan bainua hartzen. Halaxe diosku Antoniok, oñatiar batek: "Umeak gustura zebiltzan. Haizeak gogorrago jotzen zuenean bakarrik ibiltzen ziren gutxiago".

Aurreko astean, bainua debekatuta egon zen, uretan salmonella bakteria aurkitu zutelako.

Bainatzeko aukera mugatua da, ordea: izan ere, uraren egoera kalifikatzeko hiru aukeratik –eskasa, balekoa edo ona–, Landakoei balekoa eman diete, eta Osasun sailak gomendatzen du, gehienez ere, 10-15 minutuan egotea uretan, eta gero, dutxatzea.

**UR ONENA, GARAION**

Emaitza horiekin batera, Osasun sailak Arabako beste bi bainulekurenak jakinarazi zituen egubakoitzean. Hala, Landaren kalifikazio bera, balekoa, jaso du Zuatzako Uharteak.

Kalifikazio onena Garaiok izan du: ura ondo dagoela esan du Osasun sailak, eta han, bainatzea guztiz libre da, gura beste denboran.

**SALMONELLA**

Salmonella bakteria asko ematen da udan. Jatekoetan eta uretan bizi daiteke, eta horrela hartzen da gaitza; baita kutsatutako pertsonen bidez ere. Lehenengo sintomak diarrea, sukarra eta tripako mina dira. Prebenitzeko modu onena higienearekin zorrotza izatea da.

### Bizikleta errentan har daiteke egunero Garaioko urtegian

Bainatzeaz gain, dibertitzeko bestelako erak daude Garaion. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak bizikletak errentan ematen ditu inguru haietatik paseatzeko.

Egunero dago zabalik zerbitzua, 11:00etatik 21:00etara bitartean. Adin txikikoek euro bat ordaindu behar dute; helduek, 2, eta familia taldeek, 5.

### Giro atsegina dago iragarrita datozen egunotarako

Eguraldia izanda urtegietara joatea erabakitzeko faktore nagusietako bat, datorren astean giro atsegina iragartzen dute Euskalmet-ek eta Espainiako Meteorologia Erakundeak. Biek ere oskarbi eta laino tarte batzuk iragartzen dituzte, baina euririk gabe, eta tenperatura maximoak 23 eta 29 gradu bitartean.

**INGURUMENA** > ERAKUSKETA

# Ura aurreztearen inguruko proiektuen erakusketa jarri dute MUko ikasle batzuek

Ingeniaritza, gaur egungo joerak eta ikuspuntu ekologikoa batzen ditu Donostian jarri duten erakusketa horrek




**LANDARE 'AZKARRA'** Ura erabiltzen den neurrian, ximeltzen doa. VK COMUNICACIÓN

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Ura aurreztearekin lotutako hamar proiekturen erakusketa ipini dute Mondragon Unibertsitateko Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoko ikasleek. Donostian dago, Emaus Gizarte Fundazioaren EkoCenter aretoan, Belartza poligonoan, eta zabalik dago datorren eguenera arte.

Diseinua, ikuspegi ekologikoa eta gaur egungo joerak batuta, hamar proiektu egin dituzte beste horrenbeste ikasle taldek. Hala, adibidez, Anthea izeneko landarea dago, etxean zenbat eta ur gehiago gastatu, orduan eta ximelago ipintzen dena. "Gura dugu jendea kontzientzia dadin ura alperrik gastatzeak zer eragin duen, eta horretarako, ur-kontadorera konektatuta dago landarea, eta urak eragiten dien produktuak erabili ditugu", azaltzen du Leire Errasti eskoriatzarrak, egileetako batek.

Txorrota itxita dagoenean bakarrik dabilen hortzetako eskuila bat ere badago; ur eta toki faltari aurre egiteko konketa tolesgarria; dutxan, ura eta xaboia batera ematen dituen belakia; ur-koltxoneta baten moduko sentsazioa ematen duen Senses Sofa izeneko jesarlekua, eta beste proiektu bitxi batzuk.



**WIKILARIA** Arkaitz Zubiagak emango du Wikipekiaren ikastaroa. MAIDER ARREGI

**INTERNET** > IKASTAROA

# Wikipediaren inguruko tailerra emango dute gaur

Interneteko entziklopedia libre horretan, euskarazko edukiak indartu nahi dituzte

**L.K.** > ARRASATE

Wikipediaren, Interneteko entziklopedia librearen, gaineko ikastaroa egingo dute gaur, astelehena, Arrasateko Eskola Politeknikoko 1.204 gelan, 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era. Arkaitz Zubiaga arrasatearrak alderdi teorikoak azaldu eta praktika batzuk gidatuko ditu. Argibideak *tailerrak.bipuntuzero.org* webgunean daude.

Helburua da Wikipedian euskarazko edukiak bultzatzea; izan ere, edozeinek sor ditzake edukiak, edo daudenak eguneratu, zuzendu... Horretan, jende askok parte har dezakeela dio Zubiagak: "Denok dakigu zeozer, eta norberak –kazetariek, irakasleek...– lanerako egiten dituen testuak, askotan, ez dira gehiago aprobetxatzen; horiek Wikipedian sartzea garrantzitsua izan daiteke".

KONTSUMOA > ELIKAGAIAK

# Eroskik eta Jaurlaritzak kalitatezko euskal elikagaiak bultzatuko dituzte

Produktu horien salmentak urtetik urtera igotzeko konpromisoa hartu du Eroski taldeak

Elikagaiok saltokietan bereiztu egingo ditu Eroskik, eta informazio kanpainatan parte hartuko du



**HITZARMENA** Gonzalo Saenz de Samaniego, Nekazaritza sailburua, eta Constan Dacosta, Eroskiko presidentea. EUSKO JAURLARITZA

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE
Kalitatezko euskal elikagaiak bultzatzeko eta Eroski taldearen saltokietan egon eta sal daitezen errazteko, hitzarmena egin zuten Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta Eroski taldeak eguenean.

Hitzarmen horren bidez, ekintza zehatz batzuk egingo dituzte 2009ko abenduaren 31ra bitartean. Besteak beste, Eroskik honako konpromisoak hartu ditu: EAEko elikagaiak sustatzeko urtero egutegi bat egitea, eta sektoreka Eroskiren salmentak merkatu horretan hazi direnaren %5etik %10era gehitzen joatea; produktuak ondo bereiztea eta kalitate bereizgarria duten produktuak seinalatzea; euskal elikadura enpresen erreferentziak bultzatzea; promozioak egiten laguntzea; kalitate bereizgarriei heldu dieten produktuak zabaltzeko eta prestigioa emateko informazio kanpainatan parte hartzea; edo Euskal Herriko elikadura enpresekin lan egitea euren produktuak nazioartean bultzatzeko.

Jaurlaritzak elikaduraren gaineko foro jakin batzuetara Eroski eramango du, eta etengabeko komunikazioa izango du talde horrekin, beste konpromiso batzuen artean.

**90 MILIOIKO SALMENTAK**
EAEn, 500 enpresatik gora egiten dituzte produktu kalitatezkoak, ekologikoak, jatorrizko izendapendunak edo eusko labeldunak. Azken urtean, 90 milioi eurotik gorako salmentak izan zituzten produktu horiek, aurreko ekitaldiarekiko %5eko igoera.

MERKATU BERRIA

## Eroski sakelako telefonoen merkatuan sartuko da uda eta gero

Joan den urte amaieran iragarri zuen Eroskik sakelako telefoniaren merkatura salto egiteko asmoa. Konpainia birtual bihurtu nahi zuela azaldu zuen MCCko enpresak. Hala, Espainiako Telekomunikazio Batzordeari horretarako baimena eskatu zion, eta honek baiezkoa eman dio.

Hori jakinda, sakelakoen merkatuan sartzeko zein operadore erabiliko zuen jakitea bakarrik falta zen, eta joan den astean iragarri zuen Vodafone enpresarekin egingo duela lan.

Kalitatea eta prezioa kontuan hartuta, baldintza onenak jasotzen zituen eskaintza izan dela adierazi dute Eroski taldeko arduradunek.

Hala, uda eta gero, Eroskik bere telefonia konpainia jarriko du martxan, eta telefonoak eta telefonia zerbitzuak komertzializatzen hasiko da horrela. Prezio lehiakorrak, zerbitzuaren kalitatea eta bere bezeroenganako gardentasuna izango direla bere lehentasunak agindu du Eroskik.


JOSETXO ARANZABAL

## Ongietorria egin zieten Bergarako eta Antzuolako sahararrei

Bubisher elkarteak Saharatik Bergarara eta Antzuolara ekarri dituen umeei ongietorria egin zieten joan den aste bukaeran bi herri horietan; argazkian, Bergarako taldea, udaletxe aurrean, egubakoitzeko ekitaldian. Umeek badaroate egun batzuk Debagoienean, baina ongietorri ekitaldi gehiago izango da datozen egunotan: hala, Nubi elkarteak Arrasatera ekarri dituen umeek ekitaldia eta merienda izango dituzte bihar, martitzena, udaletxean, 18:00etan.

ENPRESA > AUZOLANDEGIA

# Bost gizon eta lau emakume ibiliko dira gazte ekintzaileei zuzendutako auzolandegian

Saiolan enpresak antolatutako auzolandegia gaur hasiko da, eta Elosun izango da, uztailaren 29ra bitartean

**L.K.** > BERGARA
Bihar, astelehena, hasiko da Saiolan Arrasateko enpresa eta berrikuntzarako zentroak antolatu duen auzolandegi berezi bat: enpresa bat sortu nahi duten gazteei zuzendutako auzolandegia, hain zuzen ere. Elosun bizi, lan egin eta ikasiko dute bederatzi gaztek eta lau begiralek.

Saiolango Argiñe Larreak dioskunez, ezuste handiena emakumezkoen kopurua izan da, ez zuten espero-eta hainbestek ematea izena; azkenean, bost gizonezko eta lau emakumezko batu dira, 23-35 urte bitartekoak. Larreak dioenez, "gehienek badakite, gutxi gorabehera zelako enpresa nahi duten; batzuk ideia zehatzekin datoz".

Saioak gaztelaniaz izango dira, baina euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Xabier Mugartza oñatiarrak ordezkatu du Jose Luis Madinagoitia Ulma taldeko presidentea. 33 urte ditu eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da. Bost urte eta erdi Ulma Construccionen AEBetako egoitzan finantza arduradun lanetan eman ostean, egun, Ulma Construccion-eko lehendakaria ere bada. Bere lan jardunaz eta Ulma taldeaz berba egin digu.

**Xabier Mugartza** > Ulma taldeko presidentea

# "Egungo ekonomiak derrigortzen gaitu kanpora joatera, hemengoa gordetzeko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Ulma Construccioneko presidente kargua maiatzean hartu zuen; ekainean, Ulma taldeko presidente postua hartu zuen. Ardurak bere gain hartuta, Ulma izan dugu berbetarako gai.**



Xabier Mugartza, Ulma Construccion-ek Oñatiko Otadui zuhaiztian dituen bulegoetan. I.A.

**Ulma taldeko presidente zara. Ardura handiko kargua, ezta?**

Bai, jakina. Ulma enpresa benetan handia da, jende asko gaude hemen eta kanpoan, eta horrek ardura dakar.

**Nola proposatu zizuten presidente izatea?**

Proposamenak sorpresan harrapatu ninduen. Ulman urterik gehienak kanpoan egin ditut, AEBetako filialean. Jose Luis Madinagoitiak, Ulma taldeko eta Ulma Construccion-eko presidenteak, erretiroa hartu behar zuenez, hautagaiak aurkeztu behar ziren, baina ni izan nintzen bakarra. Jose Luisekin berba egin eta, arduren berri jakinda, animatu egin nintzen pausoa ematera.

**Gaztetasuna, hortaz, ez da oztopo izan kargu hori hartzeko.**

Horrelako karguetan, esperientzia oso faktore garrantzitsua da eta, jende gaztea ikustean, pentsa genezake eskarmentu gabezia egon litekeela. Bestalde, gazteriak berarekin dauka ausardia ere.

**Zure aurrekoaren, Jose Luis Madinagoitiaren, lekua betetzeak zein zailtasun izango ditu?**

Jose Luisek presidente moduan egindako urteetatik aparte, aurretik beste 14 urte egin zituen Ulma Construccion-eko gerente modura. Esperientzia handia eta ibilbide luzea zituen pertsona bat izanda, nahikoa lan izango dut bere postua betetzen.

**Hortaz, nola egingo diozu aurre presidente karguari?**

Animu eta gogo handiarekin, eta lantaldearekiko konfiantzarekin. Zortea dut horretan: errektore kontseiluan eta zuzendaritzan oso jende ona dago, ideiak oso garbi dauzkana. Gainera, Jose Luisek esan dit, erretiroa hartu arren, laguntzeko gertu egongo dela. Esperientziarik ezaren eraginez, beharbada ez dut garbi izango nora jo, eta bere esperientzia baliagarri izango zait. Ulmari ilusioa emango diot, presidente berri naizen aldetik. Ulma Construccion-i dagokionez, negozioaren ezagutza ere emango diot. Bestalde, oreka ere beharrezkoa da alde sozialaren eta ekonomikoaren artean, eta hori ez da erraza. Gaur egungo munduan, azpimarratzekoa da kooperatiba moduko sistema batek nola bateratzen duen alde soziala, parte-hartzea, negozioaren arrakastarekin.

**AEBetan jardun zenuen Ulmarendako lanean. Aldaketa izan zen AEBetatik Oñatirakoa?**

Aldaketa handia, gauza guztietan. Lana bera ezberdina da, han egiten nuena eta hemengoa. Filial batean, beti jende gutxiago dago, eta, ia amaierara arte, hemengo bakarra izanik, denetarik egiten nuen, ardura handiagoa nuen. Ulma Construccion-en, talde handiagoa dago lanerako. Bizitzeko era ere erabat ezberdina da. New Jersey-n bizi nintzen, New York-etik oso gertu, hiri oso kosmopolita. Berriz Oñatira ohitzea ez zen hain gogorra izan, baina sumatzen dut hango gauza batzuen falta.

GAZTEA

**"Esperientzia garrantzitsua da, baina gazteak ausardia ere badauka"**

ENPLEGUA

**"Urte hasieratik hona, hazi egin da langile kopurua; une honetan, 4.000 gara taldean"**

BERRIKUNTZA

**"Deslokalizazioaren aurka egiteko, ezinbestekoa da negozioen balio erantsia"**

**Zenbakiei erreparatuta, une onean dago Ulma taldea?**

Une honetan, Ulma taldean, 4.000 langile inguru gara: atzerrian, 1.400, eta gainontzekoak, hemen. Urte hasieratik hona, hazi egin da langile kopurua. Aurretik dauden negozioetan, enplegua sortu da. Horrek esan nahi du lana dagoela eta salmentak oso doazela, emaitzak onak direla.

**Egoera ona Ulmaren negozio unitate guztietan suma daiteke?**

Taldean, negozio oso ezberdinak daude, baina salmentetan eta emaitzetan, denak daude aurreikuspenen parean, edo hobeto. Negozio bakoitza, bere mailan, baina orokorra da egoera ona.

**Ulmaren historiako momentu onean hartu duzu kargua. Abantaila izango da hori, ezta?**

Presidente kargua hartzeak enpresa ondo doanean gauzak errazten ditu. Alde sozialean, gatazka gutxiago egoten da. Baina traba ere izan daiteke. Presidente kargua hartuz gero enpresa oso ondo doanean, eta lana ondo egin ez delako edo inguruak lagundu ez duelako egoera okertzen bada, zalantza sor daiteke, ea benetan gauzak ez direlako ondo egin gertatu den, edo egoera txartu delako.

**Ulmaren presentzia nabarmena da Oñatin, baina munduan gero eta hedatuago dago. Oñatitik aldenduko den seinale?**

Ez, guztiz kontrakoa. Egungo ekonomiak derrigortzen gaitu kanpora joatera, ahalik eta herrialde gehienetara, hemengoa gordetzeko. Helburua da ongizatea bultzatzea eta enplegua sortzea, eta hori ez dago lortzerik kanpoan ezer egin gabe. Europan, leku askotan gaude: Hego Amerika ia osoan eta AEBetan; Txinan, aurten erosi dugu lehen enpresa; Dubain; Hego Afrikan...

**Oñatitik kanpo, baina gertu zabaldu duzue unitate bat. Oñatin ez dago industria lurrik?**

Legazpin, Ulma-Precinox kooperatiba mistoa ireki dugu. Industria lurren eskasia arazoa da Oñatin, eta, oro har, toki gehienetan. Ez dago industria lurrik soberan, eta alternatibei begiratu behar zaie. Oñatin, orain dela gutxi ireki ditugu bulego berriak eta teknologia zentroa, eta gune hori garatuko da.

**Zein dira etorkizunerako Ulmak dituen helburuak?**

Epe motzera, negozioak handitzen jarraitzea. Badira inbertsio asko egiten ari diren negozioak. Forjan, esaterako , lantegia handitzen ari dira; Construccion-en, inbertsioak alokatu beharreko parkeetan egiten dira eta, horretarako, inbertsio askoren beharra dago. Handitzeaz gain, hedatzea ere bada gure asmoa. Txinan, aurten erosi dugu lehen lantegia, eta berria da; Ameriketan, AEBetan, leku gehiagotara joango gara; Asian, India indartsu dabil... Beti ere, ahaztu gabe kanpoko inbertsioak direla hemengoari eusteko. Hemengoari eusteko, garrantzitsua da enplegu kualifikatua sortzea. Berrikuntza oinarrizkoa da Ulmarendako, negozio berriak sortzea. Ulma barruan, sustapen zuzendaritza sortu dugu horretarako. Deslokalizazioaren aurka egiteko, ezinbestekoa da negozioak balio erantsia izatea, ezberdina den zerbait eskaintzea.

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Calpera (Alacant) irteera egingo du Abaroa erretiratuen elkarteak**

Urriaren 20tik azaroaren 3ra izango da irteera, eta prezioa, 445 euro laguneko. Prezioaren barruan daude, besteak beste, joan-etorrirako autobusa eta 14 gau hiru izarretako hotelean, otordu guztiak barne. Izenematea da uztailaren 23tik (18:00etatik aurrera) abuztuaren 24ra. Autobuseko eserlekuak izena eman ahala izendatuko dira.

OÑATI

**> Herri Eguneko taberna hartzeko deialdia zabaldu du Kultura Sailak**

Irabazi asmorik gabeko edozein taldek eman dezake izena. Baldintza bakarra da, tabernan lanean aritzeko, gutxienez 30 lagun izatea taldean. Adjudikazioa bi urterako izango da –2007 eta 2008rako– eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da. Kultura etxean eman behar da izena. Eskari bat baino gehiago izanez gero, zozketa egingo da.

OÑATI

**> Danborrada nagusirako dantzariak eta danborrariak behar dituzte**

Dantzariek 1990. urtean jaiotakoak izan behar dute, eta danborrari izateko, berriz, nahikoa da 18 urte baino gehiago izatea. Kultura etxean edo gaztelekuko informazio puntuan eman daiteke izena. Azken eguna da abuztuaren 31. Izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute irailaren 3an.

BERGARA

**> Film laburren bigarren lehiaketa deitu dute**

Udaleko Kultura Zerbitzuak bigarren urtez deitu du lehiaketa: film laburra, abesti baten bideoklipa, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarka zein taldeka. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta 250 euro izango dira bigarrenarendako. Lanak irailaren 3ra arte jasoko dituzte. Argibideak, 943 77 91 60 zenbakian.

BERGARA

**> Basalgoko jaietako bertso afarirako izenematea zabalik dago**

Hilaren 21ean egingo dute bertso afaria, Joxe Agirre eta Amets Arzallusekin. Afarirako izenematea zabalik dago, hilaren 19ra arte, Iraho eta Mekolalde tabernetan.

ANTZUOLA

**> Euskara batzordean parte hartzeko dei egin dute**

Euskara eta Hezkuntza batzordeko ordezkariek herritar guztiei deialdia zabaldu nahi diete, interesa dutenek batzordean parte har dezaten. Lehenengo batzarra egingo dute hilaren 23an, 18:00etan. Hortik aurrera, hilabeteko lehendabiziko astelehenetan elkartuko dira, udaletxeko bilera gelan, 18:00etan.

ARRASATE

**> Kirolez Blai! eskaintzan izena emateko epea zabalik dago**

Uztaileko bigarren txandan izena emateko epea zabalik dago. Honako ekintzetan eman daiteke izena: irristaketa (16 urtetik gorakoendako), skatea (10-12 urte artekoendako), tenisa (6 urtetik aurrera, adinaren arabera banatutako lau taldetan) eta paddlean (16 urtetik gorakoendako. Izena emateko, deitu 943 77 16 77 zenbakira.

BERGARA

**> Kilometroetako arropetara ere udako beherapenak iritsi dira, %40ra artekoak**

Arropa eta osagarrietan jarri dituzte beherapenak, kasu batzuetan %40ra artekoak. Horretaz gain, produktu batzuetan bat ordaindu eta bi eroan daitezke. Denda egunero dago zabalik, domekan izan ezik, Barrenkalea 44an. Astelehenetik barikura, 17:00-20:00 ordutegia du; zapatuetan, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

BERGARA

**> EGA ikastaro trinkoa egingo dute Udal Euskaltegian**

Irailaren 3tik urriaren 5era emango dute, arratsaldez –ikasleen beharren arabera zehaztuko dute ordua. Izena emateko, deitu 943 76 44 53 zenbakira hilaren 18a baino lehen edo irailaren 3an eta 4an.

LEINTZ GATZAGA

**> Lana Internet bidez aurkitzeko ikastaroa**

Gaur, hilak 16, izango da, 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA

**> Jardun euskara elkarteak begirale lan-poltsa osatu nahi du**

2007/08 ikasturterako begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun elkarteak. Horretarako beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Bestalde, baloratuko dute ikasketak izatea, esperientziaduna izatea eta begirale titulua edukitzea. Interesatuek bidali curriculuma: Bergarako Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g (kultura etxea), 20570, Bergara. Informazio gehiago: 943 76 36 61.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Inazio Arregi** > Goienako zuzendari nagusia

# Euskara, gaur eta atzo begiratuta

*Euskara Gaur* da Lur editorialak 1971n argitaratutako liburu baten izenburua. Euskaltzaindiak Gaur etxeari eskatutako azterketa izan zen. Etxeko traste zaharren kutxan aurkitu nuen aurrekoan eta ezin uko egin begirada bat botatzeari. Elgoibar eta Errenterian egindako azterketek datu bitxiak erakusten dizkigute, eta gure herrietako soziologiak ze aldaketa eman dituen ikusteko balio digute.

Badakizu, irakurle, 1970ean, Gipuzkoako irakasleen %37,2ren iritziz, euskara ez zela eskola orduen barruan sartu behar? Badakizu Elgoibarko biztanleen %29 eta Errenteriako %18,3k bakarrik uste zuela euskara eskola orduetan eta halabeharrez erakutsi behar zela? Are gehiago, gazteen %27,9k, Elgoibarren, eta %32,5ek, Errenterian, uste zuen euskara ez zela irakaskuntzan sartu behar. Ai horietako zenbatek ikasi ote duen euskara funtzionario izateko!

**"Irakasleen %37,2ren iritziz, euskara ez zen eskola orduetan sartu behar"**

Ondoren gertatutako aldaketan zerikusi handia izan zuten euskararekin konprometituta, ikastolak eta gau-eskolak bultzatu zituztenak edo-eta euskaldun kultura bizibirritzen euren denboraren zati bat utzi zutenak.

**> Orduko gazte batek zioen bezala, orduan lanean jardun zuten herritarren izenak ez ditugu euskararen urrezko liburuan irakurriko, baina haiek egin dute posible gaur euskarak bizirautea.**

**> Urte gehiago dituen Athleticek arazoak ditu, gazte baten kapritxoek, gurasoen antsietateak eta presidente baten erabakiek epaibidean jarri dutelako. Ez die inork kontuak eskatuko?**

## debagoiendarrak kanpoan

**Ander Gillegi** > Elgeta

# "Nafarroako iparraldean ez dira erribera aldean bezain burugogorrak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

**San Ferminak bukatu berri harrapatu dugu Ander Gillegi Lesakan; azken urteotan, bertako bikarioa (parrokoa) da Gillegi. Ahal duen domeka guztietan etortzen da Elgetara, etxekoak bisitatzera.**

**Orain Lesakan bizi zara, baina, aurretik, Nafarroako beste herri batzuetan bizi izandakoa zara.**

Bai, hala da; 1994an joan nintzen Toledora, ikasketak egitera. Gero, Iruñean jarraitu nituen ikasketak; eta, azken urteotan, Nafarroan bizi izan naiz. 2000. urtean, Leitzara joan nintzen, gero Elizondora eta, urte bi Erratzun egin eta gero, Lesakan nago orain. Bertako bikarioa, edo parrokoa, naiz 2006ko irailaz geroztik. Gustura nago Lesakan.

**Esaten duten adinako buru gogorrak dira nafarrak?**

Ez, inguru honetan ez; nik uste dut Erribera aldean burugogorragoak direla, baina iparraldean, ez. Alde handia dago iparraldea eta hegoaldearen artean; iparraldean, gipuzkoarren antza dute. Industria gutxi dagoen tokia da hau,n eta bizimodu oso lasaia egite dute.

**Elgetara domekero joaten zara, gurasoak bisitatzera.**

Bai; ahal badut, behintzat, domekero joaten naiz Elgetara. Gurasoekin eta anai-arrebekin egotera joaten naiz.

**Lesakara joan zinenean, zer gustatu zitzaizun gehien?**

Egin zidaten harrera ona, batez ere. Oso ondo hartu nindu-ten; benetan, jende irekia da hemengoa. Hori da gehien gustatu zitzaidana.



GOIENKARIA

**Nafarroan ibili izandakoa**
Toledon eta Iruñean ikasi zuen; lana, berriz, Leitza, Elizondo, Erratzu eta Lesakan egin du.

**Zer iritzi dute Lesakako lagunek gure ibarraz?**

Egia esan, ez da ia batere ezagutzen gure ibarra Nafarroako iparraldean. Jendeak Arrasate ezagutzen du, batez ere, industriagatik-eta.

Bestalde, Lesakan, Oñati ere oso ezaguna da; orain urte batzuk, Oñatiko Agustinoak etorri ziren Lesakara, eta hori dela-eta ezagutzen dute. Baina, orokorrean, Donostia eta inguruko hondartzak ezagutzen ditu jendeak: Hendaia, Hondarribia...

**Kanpoan zauden urte haueetan, aldaketa handia nabaritu duzu Elgetan?**

Aldaketa, gehienbat, jendearengan ikusi dut. Inguruko herrietako jende asko etorri da Elgetara, eta, orain, ez dugu guztiak elkar ezagutzen; akaso, aldaketa handiena hori izan da.

**San Fermin jaiak ospatu berri dira. Giro ona egon da?**

Bai, oso ondo pasatu dugu, giroa benetan ona izan da. Tradizio handiko jaia da; egun handiena San Fermin eguna izaten da: dantzak, meza... izaten ditugu. Lesaka tradizio handiko herria da, eta ondo zaintzen dute tradizioa.

Baina ni ez naiz parrandazalea, eta ez naiz parrandan ibili. Kanpoko jende asko etorri da; batez ere, Bizkaia aldeko berba asko entzun dut aurten Lesakako jaietan.

kale inkesta

# Nora joango zinateke oporretan, edozein leku aukeratzeko bidea izango bazenu?



**Amaia Trojaola**
Ikaslea
Oñati

Ezagutzen dut, baina oso gustura, Port Aventurara joango nintzateke. Edozelan ere, aurten, hondartzara joango gara, Zarautzen etxea dugu-eta. Asko gustatzen zait oporretan etxetik kanpo bazkaltzea.



**Maialen Lazkanoiturburu**
Ikaslea
Oñati

Ni Ampuria Bravara noa guraso eta anaiarekin. Bertan, hondartzara eta igerilekura joango gara.

Bada, aukera izango banu, gustura joango nintzateke Port Aventurara.



**Irati Elortza**
Ikaslea
Oñati

Guk Ezkarain etxea dugu; hortaz, etxekoak laster joango gara bertara. Igerilekua eta mendia ditugu aukeran.

Edozelan ere, Port Aventurara gustura egingo nuke ihesalditxo bat anaiarekin.



**Larraitz Legorburu**
Langilea
Oñati

Abuztuaren 7an, Lanzarotera goaz, bi aste pasatzera. Ezagutzen dugu tokia, eta asko gustatzen zaigu. Hala, umeak dauzkagunez, oporrak ondo antolatzen ditugu. Bi alabekin, ezin gara edozein tokira joan.

zorroztailea



Markos Balentziaga

# Nire gainetik

""San Markosko zabortegia berriz irekitzea pentsatzen ari direnek nire gainetik pasatu beharko dute". Hitz gogorrak erabili zituen Miguel Buen PSE-EEko Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaileak (…). Errauste planta ez egiteko eta zabortegia ez ixteko aukera aipatu zuen diputatuak"."


Buenek dio bere gainetik pasa beharko dutela San Markosko zabortegia berriz irekitzeko
Mañariko harrobi bat ustiatzeko baimena baliogabetu egin du EAEko Auzitegi Nagusiak

Berria > 2007-07-14

Berba bipil-bipillak, duda barik. Diplomaziaren itxurakerixiaz ahaztutakuan politiko-jendiak be badaki kontuak argi azaltzeko ahalegiñak egiten. Kontxo! Miguel Buen Lacambra Gipuzkoako Batzar Nagusietako berbadunak esandakuak dira. Pentsatzekua da Aldun Nagusi izatera allegatu ez izanaren harri txintxarrak oraindio be zapatan segitzen dotsala.

Gipuzkoako gizartian, batez be Donostian eta Donostiaren inguru zabalian, aspaldi samarretik datorren eztabaida eta jardunkizuna da erraustegixarena; bateko, erraustegixa bai ala erraustegixa jai? Eta besteko, erraustegi hori nun eraiki, eraiki bihar bada?

Jakiña danez, maiatzeko hauteskundien aurreko Aldundiak Donostian egittia erabaki eban; baña elekziñuen ondorioz izan dan aldaketa politikuak ezbaixa sortu dau eta, orain, ikusteko dago zer gertatuko dan. Aurreko Aldundiak erabaki ebanari eutsiko dotsa barrixak? Eustearen aldekuak dira Buenen berbak.

> "Aurreko Aldundiak erabaki ebanari eustearen aldekuak dira Buenen berbak"

> "Errausketaren gañeko eztabaida egin egin da. Bihar bezain arduratsu?"

Errausketaren gañeko eztabaida egin egin da. Bihar bezain zabal, sakon, luze eta arduratsu egin da? Buru adiña aburu izango da horretan be, duda barik.

Jakinkilluak eta buruiritzixak pizti korriente samarrak dira politikaren zoologikuan. Urriñetara joan barik, hor Aznar bera horren erakusgarri ederra. Eta gogorantziari erreparatuta, oraintxe eta oraintxe be irakurle bat baño gehixago ederto akordatuko da 1976an Fragak ikurriña legeztatziaren aldeko ufalaren betian, hori egiteko "bere hilotzaren gañetik" pasatu biharra egongo zaneko erronkia zela bota zeban… Zorrotza, mutilla!

Ez Buenek oraiñ, ez Fragak orduan ez dabe iñoren ama, ez euren koskabillurik aittatu posturia zehazterakuan. Tira.

irakurlearen txokoa

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Mankomunitatearen erantzuna, pilak direla eta**

Joan den astean, Arrasateko irakurle bat pilak botatzeko kutxarik ez egoteaz kexatzen zen. Bada, Debagoieneko Mankomunitateak hau erantzuten du: "Jakinarazi nahi diogu irakurle honi badirela sei urte kaxa hauek kendu zirela Debagoieneko edukiontzi guztietatik, eta pilak saltzen dituzten denda, janari denda, udaletxe eta beste leku batzuetan daudela beste kaxa batzuk pilak botatzeko."

OÑATI
**> Mamografiak, bi urtean behin bakarrik**

Irakurle bat haserre dago, bularreko minbizia prebenitzeko neurriak ez direlako behar adinako egokiak, bere ustez: "Osakidetzan, adin batetik gorakoendako ere, bi urtean behin bakarrik agintzen digute mamografia egitera joatea. Maizago nahi badugu, gure kontutik egiteko esango digute, ezta? Osakidetza finantzatzen dugunok ez dugu arreta hori merezi, ala?", diosku.

OÑATI
**> Udalekuak, askoz hobeto antolatuta aurten**

Oñatiko ama batek idatzi digu udalekuak zelan antolatu dituzten zoriontzeko: "Aurreko urteetan, gaztelekuan utzi eta jasotzen genituen umeak, eta ez zen leku egokia, zirkulazioa dela-eta. Aurten, institutuan batzen dira, eta askoz leku hobea da bila joateko. Horrez gain, adinen arabera batzen dituzte gurasook bila joaten garenerako, eta askoz lasaiagoa eta ordenatuagoa da horrela".

usteak uste

Edurne Burgaña

# Asteburu bat gehiago, eta jai!

ASTELEHENEKO GOIENKARIA irakurtzen duzuenok jakingo duzue bertako kazetariok aste bukaeretan lan egiten dugula. Hain zuzen, eguenean hasi eta domekara bitartean lan egiten dugu, zuek, astelehenetan, aste bukaeran gertatu denaren berri izan dezazuen.

Bada, datorren aste bukaeran lan egin eta oporrak hartuko ditugu geuk ere. Beharra badaukagu, sinistu! Gainera, Mutrikuko jaiak ere datorren asteburuan hasten dira, eta, neu bertakoa naizenez gero, desiratzen nago parranda bota eta lasai ibiltzeko, eta, bost astean, behintzat, ordenagailua ia ukitu gabe egoteko.

Zuei ere, irakurleok, oporraldi lasaia opa dizuet lerro hauetatik.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Miren Agirre **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 10 **Bergara** > 11 **Oñati** > 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
**Antzuola** > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14



**> OÑATI**
I. Garagardo Festa antolatu du Aloña Mendi kirol elkarteak datorren aste bukaerarako **> 12**



**> ARETXABALETA**
Ibarra futbol zelaia gertu egongo da abuzturako, egokitze lanak bukatu ondoren **> 13**



**> LEINTZ GATZAGA**
Andra Mari jaietako horma-irudia aukeratzeko lehiaketa deitu berri du Udalak **> 14**

**OÑATI** > ARTEA

## Unibertsitateko erretaula aztertzen duen liburua kaleratu dute

### LAU URTETAKO LANA

Unibertsitate zaharreko Sancti Spiritus kaperan dagoen erretaula zaharberritzeko, lau urtetako lana egin zuten Artelan enpresakoek

### ARRAZOIAK

Bi etsai izan zituen erretaulak: batetik, 60ko hamarkadako termiten izurritea; eta bestetik, itoginak eta hezetasuna

**EDURNE BURGAÑA** > OÑATI

Oñatiko Unibertsitatearen erretaula platereskoaren eraikuntza, eta hura berritzeko 2001 eta 2005 urteen artean egindako lanak aztertzen dituen liburua kaleratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Egileak Pedro Etxeberria Goñi historialaria eta Xabier Martiarena Lasa zaharberritzailea dira. Mila ale kaleratu dituzte.

Pierres Picarten obra da Oñatiko Unibertsitatearen erretaula, eta unibertsitate zaharreko Sancti Spiritus kaperan dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, liburuarekin, 2001. urtean hasitako prozesua amaitzen da. Urte hartan hasi zituzten berritze lanak, eta, lau urte geroago, 2005ean, obra berriro ere ikusgai jarri zuten.

**ARRAZOIAK**

Termitek asko eraso zioten erretaulari 60ko hamarkadan. Izurria 1968an eliminatu bazen ere, egitura egoera oso larrian geratu zen. Berritze lanak egin behar zirela argi zegoen, eta Artelekukoek egin zituzten. Horrela, erretaula desmuntatu eta pieza guztiak banan-banan hartu zituzten, tratatzeko eta zaharberritzeko.

Kontserbazio lanetan, termitak kendu eta haiek hartutako lekua eta gero erantsitako zatiak garbitu egin zituzten. Gaizki zeuden zatiei dagokienez, egurrezko euskarri berri batean egituratu zituzten.

Baina termitak ez ziren izan kalte egin zuten bakarrak. Itoginek eta hezetasunak hartutako zatiak ere oso hondatuta eta aldatuta zeuden: urreztatzea eta polikromia altxatuta zeukaten. Beraz, zati horiek finkatu eta sendotu zituzten, gehiago ez erortzeko, eta urreztatzea eta polikromia kontserbatzen saiatu ziren.

Jatorrizko polikromia berreskuratu eta piezaren benetako egoera bistan jarri zuten. Pieza bakoitzaren garbiketa sakonaren ondoren etorri zen zaharberritzea. Jatorrizkoa ahalik eta gehien gordetzen saiatu ziren, baina denboraren ukitua eta orbanak ezabatu gabe.

**BIGARREN FASEA: ZAHARBERRITZEA**

Erretaula ahalik eta gutxien aldatzeko, erantsitako egiturako elementuen zati handi bat bistako egurrean utzi zuten, irudien elementu batzuen —behatzak eta loreak, adibidez— galera errespetatu, hutsune asko edo piezaren irakurketa mozten ez zutenak gorde, eta gainerakoak zaharberritu egin zituzten. Horretarako, irizpide bereizlea erabili zuten: regatinoa edo puntillismoa. Hori horrela, faltsu historikoa saihestea lortu zuten.

Lanekin amaitzeko, erretxina akriliko apaldu bat erantsi zioten obrari, babestu ahal izateko. Azaldutako lan guztiak egiteko, lau urte behar izan zituzten; 2005etik dago ikusgai berriro ere erretaula Sancti Spiritus kaperan.



**BERRITUTA** Erretaularen egungo itxura, goitik behera berritu ondoren. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

HIRIGINTZA > OBRAK

# Santa Teresa eliza itxita izango da datorren urtera arte, obrak egiten hasi direlako

Eliza itxita dagoen bitartean, mezak San Isidron esango dituzte, eta hileta elizkizunak, berriz, San Frantziskon izango dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Justu gaur astebete da Santa Teresako obrak egiten hasi zirela. Luis Canas eraikitzailea dabil jardunean, eta LKSk, berriz, proiektu eta koordinazio lanak egin ditu.

Oro har, lau hilabeteko epea (abuztua izan ezik) zehaztu dute lanok bukatzeko, "hurrengo urterako bukatuta-edo izango dela aurreikusi dute", jakinarazi du Pedro Luis Urangak, Santa Teresako apaiz arduradunak.

Parrokia itxita dagoen bitartean, domeketako mezak Musakolako San Isidro ermitan egingo dituztela esan du hark –astegun eta zapatuetan egiten duten moduan–, eta hiletak, berriz, San Frantzisko parrokian.



MAKETA Santa Teresa eliza eta haren ingurua zela geratuko diren erakusteko maketa egin dute. GOIENKARIA

Hauxe egin gura dute Musakolako parrokia horretan: teilatu eta berogailu sistema berriak ipini eta gaur egungoa baino 18 zentimetro gorago dagoen zoru berria. Horrez gainera, parrokiak, gaur egun, ez ditu betetzen legeak zehazten dituen arauak, segurtasun eta ailegaerraztasunari dagokienez. Hori horrela, hau ere egingo dute: larrialdietarako ate berria; larrialdiko argiak; su-itzalgailuak; elizarako sarreran dauden oztopo arkitektonikoak ezabatu; alboan duten lorategitxoa kendu; eta arrapala bat eraiki eta eskailerak ere berritu gura dituzte.

Hori guztiori egiteko, aurreikusi zuten 251.540,47 euro beharko zituztela, eta gastuei aurre egitek laguntza eskatu zuten.

### USTE BAINO GASTU HANDIAGOA

Eta eskuratu ere, eskuratu dute laguntza: "Kuotekin-eta, jendeak erantzun zuen eta, horrez gainera, mezetan-eta, kolekta bereziak egiten bagabiltza", adierazi du Urangak. Edozelan ere, hasierako aurrekontuak igoera izan duela ere gaineratu du: "Orain, kalkulatzen dute 300.000 euro beharko direla… oraingoz".

Hori horrela, edozein laguntza ondo hartuko dutela dio Urangak. Aukera bi daude horretarako: hilean edo urtean kuota jakin bat ordaindu edo, norberak gura duenean, kopuru bat kontu korrontean sartu. Bi kontu korronte zabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan: 3035 0055 17 05 5 104 19 05; eta Kutxan: 2101 0097 45 0 1111 82 408.

AUZOAK > GESALIBAR

# Beste lau urtean izango da auzo alkate Joserra Askasibar

Gesalibarren gaineko ikerketa batek aipatzen dituen premiei helduko die: zuntz optikoa, auzoko sarrera konpontzea...

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Joserra Askasibar izango da Gesalibarko auzo alkatea datozen lau urteotarako. Hala erabaki zuten auzotarrek atzo, domeka, egindako bozketan. Goizean izan zen hauteskundea, Jentil-Ola elkartean, eta 42 aldeko boto izan zituen Askasibarrek, hautagai bakarrak; boto zuri bat ere egon zen. Denetara, ehun bat lagunek zuten bozkatzeko eskubidea.

Askasibarrek 51 urte ditu eta urretxuarra da, baina azken 20 urteotan Gesalibarren bizi da. Bigarren aldiz jarraian izango da auzo alkatea.

### ASMOAK

Bere lehentasunak zeintzuk izango diren galdetuta, hauxe erantzun du Askasibarrek:



BOZKETA Auzotarrak, bozkatzen; ezkerrean, Joserra Askasibar. JOSETXO ARANZABAL

"Agurne Juldain soziologoak orain dela gutxi egin du auzoaren gaineko ikerketa, eta han agertzen diren premiei erantzutea izango da nire eginkizuna. Badaude zenbait behar: adibidez, airean dauden kableak lur azpian sartzea, zuntz optikoa ekartzea auzora..." Hirigintza asmoak ere baditu: "Auzoko sarrera oso gaizki dago, eta hura ere konpondu egin behar da. Goiko baserriak pixka bat utzita daude, eta horietaz ere arduratuko gara".

Datozen lau urteak izango ditu auzo alkateak, hortaz, asmo horiei heltzeko.

ZERBITZUAK > MUSAKOLAKO IGERILEKUA

# Igerilekuaren ordutegia egokia dela dio Aukeak

Sinadurak batzen ibili dira herritar batzuk, igerilekuak lehengo ordutegi berbera izan dezan eskatzeko

U.M. > ARRASATE

Hogei sinaduratik gora batu dituzte, Musakolako kiroldegiko igerilekuaren ordutegiarekin lotuta.

Izan ere, orain udako ordutegia du igerilekuak. Horrek esan gura du 10:00etan zabaltzen dutela, orain arte baino beranduago. Orain batzen dabiltzan sinaduren bitartez eskatzen dutena da igerilekuaren ordutegia alda dezatela. Diote orain arte moduan, 09:00ean, zabalduko balute, herritar gehiagok izango lukeela hura erabiltzeko aukera; izan ere, eta berezi-ki, norberaren lan jarduna kontuan hartuta, guztiek ezin dute igerilekua erabili lanera joan aurretik, goizean.

Egin berri dituzten tenis pistak erabili ezin izanak ere haserrea eragin du. "Aurrekoan deitu nuen tenis pista alokatzeko, eta esan zidaten ezin nuela alokatu, oraindik itxita daudelako. Aldiz, ikastaroak egiten badabiltza. Eta horretarako eskubierik ez dago", dio erabiltzaile batek.

### TENIS PISTA BERRIAK

Aukeak honakoa erantzuten du: "Tenis pista erabiltzeko baimenik ez daukagu. Aldiz, baimen puntuala eman ziguten, ikastarorako, erabilera mugatua eta ikuskatua zelako".

Igerilekuen gainean, Aukeak dio 32/2003 dekretuko arau sanitarioa betetzeko, kanpoko zein barruko igerilekuek, bakoitzak, bere aldagelak, komunak… izan behar dituela, eta orain ez dela hori kasua. Horregatik, biak batera ezin dira zabaldu, eta kanpoko igerilekua, aisialdikoa, bakarrik zabaldu dute. Ordutegia 10:00etan jarri dute, udan, goizago, inor gutxi ibiltzen delako, Aukearen esanetan.




**ORGANOA** Hainbat organo jolek ikusi zuten ondotik San Pedroko organoa. JOSEBA ANTIA

**ONDAREA** > SAN PEDROKO ORGANOA

# San Pedroko organoa bisitatu dute zenbait jolek

Frantzia, Belgika eta Kanadako hainbat organo-jole etorri ziren eguenean, bisitan

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Frantzia, Belgika eta Kanadatik etorritako organo-jole ugari elkartu ziren eguenean San Pedro elizan. Frantziako Organoaren Lagunen Elkartekoak ziren, eta Euskal Herriko organo erromantikoak bisitatzen dihardute egun hauetan. Eguenean, Bergaran izan ziren, San Pedro elizako organoa ikusten. Instrumentu horren berezitasun handiena da 1889an egin zenetik ez diotela inolako zaharberritze lanik egin.

**XIX. MENDEKOA**

San Pedro elizako organoa XIX. mende bukareakoa da, 1889 urtekoa. Stoltz anaiek egin zuten. Ordutik hona, organoari ez diote inolako errestaurazio lanik egin. Beraz, gaur egun ematen duen soinua orain 100 urte baino gehiago ematen zuen berdina da. Berezitasun horrek, duda barik, altxor bihurtzen du Bergarako organo hori, eta kanpoko organo-joleek bisitatzea erabaki dute. Euskal Herriko beste organo erromantiko batzuekin batera ikusi dute Bergarakoa ere. Joleak ez ezik, organozaleak ere joan ziren eguenean San Pedro elizara.

**UDALA** > AGINTALDI BERRIA

# Udal eraketa berria onartu du udalbatzak osokoan

Akonfesionaltasuna ere onartu du; EAJk eta PSE-EEk aurka bozkatu dute, eta EA abstenitu egin da

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Udal eraketa berria onartu zuen udalbatzak eguenean egindako osoko bilkuran. Aurrerantzean, EAEk eta Aralarrek osatuko dute udal gobernua, eta euren artean banatu dituzte batzordeak. Horrela, 11 batzorde informatzaileetako bederatziren batzordeburuak EAE alderdikoak izango dira, eta birenak, Aralarkoak.

Bi pertsonaren liberazioa ere onartu zuen udalbatzak: Agurne Barruso eta Enara Minguez. Horrekin batera, bileren maiztasuna ere zehaztuta gelditu zen: ohiko osoko bilkurak hileko azken astelehenean egingo dituzte, eta gobernu batzordeak, astelehenetan.

**AKONFESIONALTASUNA**

Udal eraketaren inguruko puntuez gain, beste batzuk ere eztabaidatu zituzten eguneko osoko bilkuran. Horietako bat izan zen udalaren akonfesionaltasuna onartzea. EAJk eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten, "ohiturak errespetatu behar direlako", eta EA abstenitu egin zen, "posturarekin ados egon arren, ohitura delako erlijio ekitaldietara joatea, eta batzuek ez dutelako ondo hartuko". Alkateak erantzun zuen "errespetuagatik" hartu dutela erabaki hori, "erlijio bat edo beste ez hobesteagatik". Azkenean, onartuta gelditu zen puntu hori, EAE eta Aralarren botoekin.



**BILKURA** Eguenean egin zuten osoko bilkura. UBANE MADERA



JOSETXO ARANTZABAL

# Herri bazkaria egin du udal musika bandak

Udal musika bandak bazkaria egin zuen domekan, 175. urteurrena ospatzeko. 200 lagun baino gehiago elkartu ziren udal pilotalekuan. Horien artean zeuden, adibidez, bandan jotzen duten musikariak eta aurreko urteetan jo izan dutenak. Baita udal ordezkariak ere, oraingo eta lehengo kultura zinegotziak eta alkateak, esaterako.

175 urte betetzen ditu aurten udal musika bandak, eta antolatutako ekitaldien artean sartu zuten domekan egindako bazkaria. Kalejirarekin hasi zuten eguna eta, eguerdian, kontzertua eskaini zuen frontoian. Pilotalekuan bertan egin zuten gero bazkaria, eta ostean, dantzaldia egon zen, Koxkorrena musika taldearekin.

> KILOMETROAK

### Beherapenetan daude KMK-ko arropak

Udako beherapenak jarri dituzte Kilometroetako dendan. Arropa eta osagarrietan jarri dituzte, kasu batzuetan %40ra artekoak. Horretaz gain, produktu batzuetan, bat ordaindu eta bi eraman daitezke. Aste barruan, arratsaldeetan zabaltzen dute denda; zapatuetan, goiz eta arratsaldez, eta domeketan, itxita.

> KIROLA

### Agorrosin beranduago zabalduko dute 20an

Datorren egubakoitzean, uztailak 20, beranduago zabalduko dute Agorrosin ekintzaguneko ate nagusia: 08:30ean zabalduko dute, 07:00etan zabaldu ordez. Atzerapen horren arrazoia da tentsio altuko transformadoreetan argia kenduko dutela 05:00etatik 08:30era.

**JAIALDIA** > I. GARAGARDO FESTA

# Garagardo Festa, Aloñaren eskutik

## I. Oñatiko Garagardo festa uztailaren 20tik 22ra ospatuko da, herriko plazan

## Zortzi garagardo mota edateko aukera egongo da plazako karpan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Aloña Mendi Kirol Elkarteak antolatuta, I. Oñatiko Garagardo Festa ospatuko da aste bukaeran, egubakoitzetik, uztailaren 20tik, domekara arte.

Egubakoitzean, arratsaldeko zazpietan, hasiko da Garagardo Festa. Lehen egunean, goizeko ordubata arte egongo da zabalik. Zapatuan eta domekan, eguerdiko ordubatean zabalduko da. Giroa alaitzeko, herriko bertsolari, trikitilari eta hainbat musika talde ibiliko dira karpa barruan.

**KARPA HANDI BAT**

Karpa erraldoi bat jarriko dute herriko plazan: 450 metro koadroko karpa.

Karpa horretan, zortzi garagardo mota edateko aukera egongo da:gargardo horia, beltza, gorria... edo whisky eta tekila zaporea duten garagardoak. Edozelan ere, alkoholik gabeko garagardoa ere egongo da, eta baita, ura eta freskagarriak ere.

**TXERRI-UKONDOA**

Egubakoitzetik domekara, Oñatiko plazan egongo den karpan, jatekoa ere egongo da: bostehun bat lagunek afaltzeko edo bazkaltzeko lekua egongo da. Txerriukondoa, oilaskoa eta hainbat motako saltxitxak egongo dira aukeran.

Halaber,Aloña Mendi Elkartea osatzen duten sail guztietako 150 bat pertsona ibiliko dira lanean.

**HELBURUAK**

Bi helburu nagusi ditu aste bukaerako ospakizunak: Aloña Mendi Elkarteko sail guztiak elkartzea, batetik, eta urteko gastuei aurre egiteko, sail guztiendako diru-baliabideak lortzea, bestetik. Hala, irabaziak sail guztien artean banatuko dira.




**IRUDIA** Feriako irudia, Aratz Losadak onatiarrak egin du. ARATZ LOSADA



**ZOZKETA** Argazkian, zozketaren une bat. OIHANA ELORTZA

**ETXEBIZITZAK** > BABES OFIZIALEKO ETXEAK

# Ugarkaldeko etxeen informazioa, Lizaur kalean

## Informazio bulegoa bi astez egongo da zabalik, Lizaur kaleko 5. zenbakian

**M.B.** > OÑATI

Joan den astean egin zen Ugarkaldeko babes ofizialeko etxeen zozketan, etxea egokitu zitzaien 39 herritarrendako, informazio bulegoa zabaldu berri da. Bulego hori Lizaur Kaleko 5. zenbakian, lehen psikopedagogia zentroa zeneko lokalean zabaldu dute.

Bulego hori bi astez egongo da zabalik, goizeko hamarretatik ordubietara bitartean, eta arratsaldez, bostetatik zazpietara bitartean.

**GUTUNAZALAK**

Zozketa bidez etxea egokitu zaienek etxearen inguruko informazioa, planoa eta bestelako xehetasunak dituen gutunazala jaso behar dute bulegoan. Hala, informazioa jaso ondoren, hamabost eguneko tartea zabaltzen da, etxea onartu edo baztertzeko. Errenuntzia bakoitzeko, erreserba zerrendako izenak hartuko dira.

## Zozketa bidez etxea jaso dutenak

**GUTXITUENDAKO**

Soledad Borreguero Apolinar eta Juan Antonio Nieves Pesquera. (Ugarkalde auzoa 8, behea D)
Hutsik gelditu da (Ugarkalde auzoa 9, behea D)

**FAMILIA UGARIENDAKO**

Alejandro Martin Rodriguez eta Mari Jose Hidalgo Macho (Ugarkalde auzoa 8, 2.-D)
Eduardo Astudillo Gonzalez eta Mª Aranzazu Diaz Leon (Ugarkalde auzoa 8, 3.-B)
Dario Casas Noreiega eta Rosana Viana Andrade (1go erreserba)
Maria Dolores Palomero Garcia (2. erreserba)
Sandra Morales Muriel eta Luis Mari Lopez Palacios (3. erreserba)

**GAINERAKO ETXEBIZITZAK**

Gorka Garcia Madinagoitia (Ugarkalde auzoa 8, behea A)
Aitor Arabaolaza Madinabeitia (Ugarkalde auzoa 8, behea B)
Oihana Betelu Orueta (Ugarkalde auzoa 8, behea C)
Maria Pilar Garcia Garcia (Ugarkalde auzoa 8, 1-A)
Josu Biain Arregi (Ugarkalde auzoa 8, 1-B)
Iker Jimenez Ostolaza (Ugarkalde auzoa 8, 1-C)
Unai Arzamendi Goitia (Ugarkalde auzoa 8, 1-D)
Iñaki Agirrebengoa Urzelai (Ugarkalde auzoa 8, 2-A)
German Sierra Garcia (Ugarkalde auzoa 8, 2-B)
Sonia De la Fuente Malvesado (Ugarkalde auzoa 8, 2-C)
Pablo Arejolaleiba Ugarte (Ugarkalde auzoa 8, 3-A)
Aitzol Arregi Urzelai (Ugarkalde auzoa 8, 3-C)
Lierni Axpe Arenaza (Ugarkalde auzoa 8, 3-D)
Marcela Cascante Peralta (Ugarkalde auzoa 8, 4-A)
Lierni Arregi Iturralde (Ugarkalde auzoa 8, 4-B)
Sandra Madina Anduaga (Ugarkalde auzoa 8, 4-C)
Jose M. Telleria Rodriguez eta Miren Karmele Aldasoro Mendizabal (Ugarkalde auzoa 8, 4-D)
Nagore Garcia de Albeniz Elorza (Ugarkalde auzoa 9, behea A)
Juan Cruz Urtaza Gambra (Ugarkalde auzoa 9, behea B)
Jose Ramon Viana Erle (Ugarkalde auzoa 9, behea C)
Aitor Martins de Campos (Ugarkalde auzoa 9, 1-A)
Daniel Gende Ramirez (Ugarkalde auzoa 9, 1-C)
Jose Antonio Fernandez Guzman (Ugarkalde auzoa 9, 1-D)
Leire Elizondo Goienetxea eta Gotzon Fernandez Otaegi (Ugarkalde auzoa 9, 2-A)
Jesica Gonzalez Sanchez (Ugarkalde auzoa 9, 2-B)
Jon Mirena Lopez Blazquez (Ugarkalde auzoa 9, 2-C)
Egoitz Martin Markuleta (Ugarkalde auzoa 9, 2-D)
Gorka Goenaga Ugarte (Ugarkalde auzoa 9, 3-A)
Carlos Gonzalez Jimenez (Ugarkalde auzoa 9, 3-B)
Jokin Mugarza Ezpeleta (Ugarkalde auzoa 9, 3-C)
Saioa Umerez Ezeolaza (Ugarkalde auzoa 9, 3-D)
Susana Urmeneta Mondragon (Ugarkalde auzoa 9, 4-A)
Juana Kortabarria Zulueta (Ugarkalde auzoa 9, 4-B)
Andoni Boyero Vieira (Ugarkalde auzoa 9, 4-C)
Iban Zubiria Madina (Ugarkalde auzoa 9, 4-D)

> JAIAK

### Herri eguneko tabernaren ardura hartzeko deialdia

Udal Kultura sailak, bi urtean behin egin ohi duen bezala, San Migel jaietan, Herri Eguneko herri tabernaren ardura hartzeko deialdia egin berri du.

Deialdia kultura, kirol zein gizarte arloan lan egiten duten herriko talde guztiei dago irekia. Hori bai, herri tabernaren ardura behar bezala betetzeko, gutxienez, 30 laguneko taldea izatea eskatzen da.

Interesa duten taldeek eskaera kultura etxean egin behar dute, uztailaren 20a, datorren egubakoitza, baino lehen.

Talde bat baino gehiago aurkezten bada, zozketa bidez erabakiko da zeini eman.

> HIRIGINTZA

### Hainbat baserrietako bideak asfaltatzeko lanak, enkartera

Goribarko Berotegi, Garibaiko Duruan eta Zubillagako Askazubi baserrietarako bideak asfaltatzeko lanak enkantera atera ditu Udalak.

Edozelan ere, baserri hauetako bideak ez dira osorik asfaltatuko; egoerarik okerrenean dauden zatiak dira konponduko direnak. Hala, lan hauek egiteko, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartearen dirulaguntza jasoko du Udalak: 55.000 euro guztira. Baserri bideak asfaltatzeko lanen aurrekontua 217.000 eurokoa da.

Lanok egiteko eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 23an amaitzen da.

> ELIZA

### Gaixoen oliadura emango zaie gaixo eta adineko pertsonei

Egubakoitzean, Mikel Goiaingeruaren parrokian, hala nahi duten gaixoei eta adineko pertsonei gaixoen oliadura emango zaie. Sakramentuaren ekitaldia parrokian bertan izango da, arratsaldeko bostetan.

Edozelan ere, egubakoitzean parrokiara joan ezin dutenek gaixoen oliadura etxean bertan jasoko dute, datorren astean. Hortaz, senitartekoei, gaixoaren izenabizenak eta helbidea parrokiako bulegoan ematea eskatzen zaie.

Halaber, eguazten eta eguenean, sakramentu honen inguruko hitzaldiak eta aitortzak egongo dira, parrokian, 17:00etan.

**ESKORIATZA** > UDALA

# Leintz Ibarraundi Fundazioaren gainean hausnarketa egingo dute

EAEk fundazioaren helburuekin bat egin arren, hausnarketa egin gura du

Irailaz geroztik, osoko bilkurak eguaztenetan, 18:30ean, egitea erabaki zuten

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Joan den eguenean egin zuten Pedro Lasagabaster alkate dela lehenengo osoko bilkura. Besteak beste, batzordeak eta azpibatzordeak osatu eta horien buruak izendatu zituzten. Erabaki gehienak EAE-ANV, EA, EAJ eta Elizateak Elkartearen botoekin irten ziren aurrera. PSE-EEk babesa eman zien batzuei, eta beste batzuetan abstenitu egin zen. Ezker Batua-Aralar, berriz, abstenitu egin zen, eta, zenbait kasutan, ezetz bozkatu zuen.

Hortaz, bozketan ez zen aurreikusitakoarekin alderatuta ezusterik izan: Hirigintza eta Pertsonalaren ardura EAEko Pedro Lasagabasterrek hartu zuen; Kulturakoa, EAEko Edorta Barandiaranek; Ogasunarena, EAJko Aitor Urrutiak; eta Gizarte Ongizatea, berriz, EAko Juan Carlos Bengoak hartu zuen.



**IKA-MIKA** Juan Luis Merinok (ezkerrean) eta Pedro Lasagabaster (bigarren planoan) alkateak eztabaida izan zuten. I.B.

Batzordeen egutegia ere eztabaidatu zuten. Hileko lehen eta hirugarren asteetan batuko dira Hirigintza (astelehena), Kultura (martitzena), Ongizatea (eguaztena) eta Ogasuna (eguena). Bestalde, Pertsonal Batzordeko kideak hileko bigarren astelehenean batzartuko dira. Ordutegiak batzordekideek erabakiko dituzte.

**OSOKO BILKURAK, EGUAZTENETAN**

Hartutako beste erabaki berri bat da, irailaz geroztik, Udaleko osoko bilkurak eguaztenetan egingo dituztela, 18:30ean, eguenetan egin beharrean.

Bestalde, oraingo agintaldian, Pedro Lasagabasterrek %75eko lan jarduna izango du Udalean, eta EAEko zinegotzi Dorleta Lezetak, %25ekoa. Lezeta Obra eta Zerbitzuen arduraduna da.

**LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOA**

Horren ostean, eztabaidagai izan zuten udal erakundeetako ordezkarien izendapena. Puntu horretan, eztabaida sortu zen Leintz Ibarraundi Fundazioa aztertzerakoan. EAEk proposatu zuen udal ordezkariak alkatea eta Kulturako eta Turismoko batzorde buruak izatea, eta fundazioaren gaia hobeto aztertzea. Ezker Batua-Aralar taldeko Juan Luis Merinok, berriz, desadostasuna agertu zuen, ordezkari guztiak alderdi berekoak direlako.

Horren aurrean, Pedro Lasagabaster alkateak argudiatu zuen, fundazioaren helburuekin bat egin arren, beronen osaketan, finantzaketan eta funtzionamenduan hainbat gauza ez dituztela argi ikusten. Horregatik, ika-mika izan zen EAE eta EBren artean.

**ARETXABALETA** > KIROLA

# Futbol zelaia, abuztu erdialderako, gertu

Ureztatze sistema, belarra, ordezkoen aulkiak, ate-sareak eta markagailu berriak jarriko dituzte

**I.B.** > ARETXABALETA

Joan den astelehenean hasi zituzten Ibarra futbol zelaia eraberritzeko lanak. 339.000 euroko aurrekontua dute lanek, eta Mondo enpresari adjudikatu dizkiote.

Lanak adjudikatzeko orduan, Udalak garrantzia handia eman zion lanok egiteko epeari. Hala, Mondo enpresak 27 lanegunetan bukatuko zituela jakinarazi zuen. Hortaz, Udaleko Kirol teknikari Asier Mujikak aurreikusi du abuztu erdialderako bukatuko dituztela: "Hala komeni zaigu, abuztuaren 20an aurredenboraldia hasten da-eta".

Egiten dabiltzan lanen artean aipagarria da zelaia ureztatzeko sistema berria jarriko dutela, eta oso berritzailea, gainera. Ura zelai azpitik joango da, kautxuko motelgailu batzuen barruan; eta sei kanoi handik ureztatuko dute zelaia. Azaldu digutenez, halako sistema ezartzen duen Euskal Herriko lehenengo futbol zelaia izango da Aretxabaletakoa.



**IBARRA** Lanak ibarra zelaian. JOSETXO ARANTZABAL

**1995EAN INAUGURATU ZUTEN**

Ibarra futbol zelaia Markole etxeko urbanizazioaren barruan egin zuten, eta 1995ean inauguratu zuten. Orduan jakinarazi zieten belarrak 10 urteko bizitza izango zuela. Hala, 12 urte pasa ostean, aldatuko dute orain belarra. Orain jarritakoak, berriz, hamaika bat urte iraungo duela jakinarazi diete.

Bestalde, belarra eta ureztatze sistema aldatzeaz gain, atesareak, ordezkoen aulkiak eta markagailu elektronikoa jarriko dituzte.

**ARETXABALETA**

# Jaietarako, pilotalekua margotuko dute

**I.B.** > ARETXABALETA

Iturri Gorrin sute txiki bat egin zuten ekainaren hasieran. Hala, aseguru konpainiak pilotaleku zati bat margotu du. Behin hori margotu ostean, Udalak erabaki zuen pilotaleku osoa margotzea. Hala, Aquilino margo enpresari lan hori adjudikatu dio.

**PARTIDU PROFESIONALAK**

Udalak jakinarazi digu jaietan pilota partiduak izango direla, eta ordurako Iturri Gorri margotuta egongo dela. Honako hauek izango dira: hilaren 15ean, Aretxabaletako promesak, 11:00etan; eta hilaren 16an, Saralegi eta Oteiza, Belloso eta Mendizabal II. aren kontra. Jarraian, Unanuek eta Otxandorenak Bengoetxea VI.a eta Argote izango dituzte aurkari. 10 euro ordaindu beharko dira.



**AKTAK** Udalbatzarrak onartu zuen aurrerantzean aktak webgunean argitaratuko dituztela, edozeinek ikusteko. LARRAITZ ZEBERIO

**ARAMAIO** > OSOKO BILKURA

# Alkatearen soldata jaistea erabaki zuten

## Soldata jaisteaz gainera, lan ordu gehiago egingo ditu alkate berriak; egunero, bat gehiago

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Azkeneko osoko bilkuran hartutako erabakien artean, alkatearen soldata jaistea eta haren lan orduak handitzea proposatu eta onartu zuen udalbatzarrak.

Hori egiteko, alkatearen soldata maila jaitsi egin dute, orain arteko 25. mailatik 19. mailara. Eurotan begiratuta, 1.113 euro neto kobratuko ditu Asier Agirrek hilean, egunean lau ordu alkate lanetan jardutearren (azken lau urteotan, hiru ordu izan dira), "nahiz eta errealitatean gehiago egin behar izango", dio oraingo alkateak.

Zinegotziei dagokienez, berriz, orain arte moduan, ez dute liberaziorik izango. Hori bai; Udalerako jardutearren, euren lanpostuetan galtzen dituzten orduak ordaindu egingo dizkie Udalak.

**GAZTEEKIN BATZARRA**

Bestalde, Udalak onartu duen beste berrikuntzetako bat da, aurrerantzean, eta hainbat herritarren eskaera aintzat hartuta, Udalaren aktak webgunean argitaratzea. Modu horretan, edozeinek kontsultatu ahal izango ditu.

Bestelakoen artean, iragarri zuten gazteekin batzarra egiteko asmoa dutela. "13-17 urte bitartekoei gonbidapena bidaliko diegu, baina interesa duen edozein gazte etor daiteke". Batzarra egingo dute oraingo barikuan, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

**ANTZUOLA** > HIRIGINTZA

# Bergarara arteko bidegorriaren proiektua, atzeratuta

## Bidegorriaren trazatua berraztertu egingo dute, zati batzuetan, ur zikinen kolektorearen trazatuarekin bat egingo duelako

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Orain dela hilabete batzuk aurreratu zigun Udalak Antzuola-Bergara bidegorria laster egingo dutela. Errepide zaharrean eta Errege Bidearen zati baten egingo dute bidegorri hori. Orain, baina, jakin dugu proiektu hori atzeratu egin dela.

Diputazioko arduradunek horrelaxe azaldu digute atzerapenaren arrazoia: hainbat zatitan, ur zikinen kolektorearen trazatuak eta bidegorriarenak bat egiten dute; horrela, elkarlanean egingo dituzte proiektuok. Kolektorearen proiektuaren ardura da Eusko Jaurlaritzarena; bidegorriaren ardura, berriz, Diputazioarena. Erakunde biek elkarlanean jardungo dute, proiektuok koordinatzeko. Harreman Ingeniaritza Taldeak dihardu bidegorriaren proiektua idazten, eta espero dute urte bukaerarako idatzita egongo dela.

**ERREPIDE ZAHARRETIK**

Erdigunetik Matz-Errekaraino badago oinezkoendako bidea. Handik aurrera egingo luke bidegorriak; Diputazioko arduradunen asmoa da, Ariztiberri baserriaren ondoan, erreka pasatzeko zubitxo bat egitea. Gero, Bergararako errepide zaharretik jarraituko du bidegorriak. Burdinkurutzen inguruan, Errege Bidearekin bat egingo du. Gune horretan, beste zubi bat egitea aztertzen dihardute. Bidegorria Bergararaino iritsiko da, Urteagaraino, hain zuzen ere.

Udaleko arduradunek esan digutenez, bergararrek eta antzuolarrek aukera bikaina izango dute paseorako; gainera, aldaparik igo gabe pasatzeko aukera emango du. Dena dela, Bergaran lan egiten duten antzuolarrek eta Antzuolan lan egiten duten bergararrek ere, bizikletaz zein oinez, joan-etorria egin ahal izango dute.

Kolektoreari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak dihardu proiektua idazten; herriko ur zikinak Mekolaldeko araztegira eramango dituzte, han garbitu eta errekara isurtzeko.

**ELGETA** > OSOKO BILKURA

# Bederatzi batzordetik sei Aralarrek hartu ditu; hiru, EAE-ANVk

## Zinegotzien eta batzorde buruen soldata mantendu egingo da; alkatearena, %15 jaitsi

## Uruburuko transformadorearen kokapena izan zen egueneko plenoan gairik eztabaidatuena

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Eguenean, hilak 12, egin zen udal batzordeak banatzeko plenoa Elgetan. Aralarrek eta Eusko Abertzale Ekintza-ANVk akordioa egin dute. Hala, Udalean izango diren bederatzi batzorde finkoetatik sei Aralarrenak izango dira, eta hiru, EAE-ANVrenak.

Aralarrek hartu dituen batzordeak honakoak dira: Hirigintza, Ogasuna, Kultura eta Euskara, Kirolak, Jaiak eta Hezkuntza. Eusko Abertzale Ekinzak Ongizatea, Baserritarrak eta Turismoa hartu ditu. Batzordeak hileko bigarren astean egingo dira, eta ez da gobernu batzorderik egongo. Udalbatzarrak hileko laugarren astean izango dira.

**ALKATEAK, 1.770 EURO HILEKO**

Karguen soldatari dagokionean, alkatearen soldata %15 jaistea erabaki zuten. Urteko soldata 24.786,62 euro izango da; 1.770 hileko, hortaz. Zinegotzien soldata eta talde politikoen ordainsariak mantendu egingo dira. Zinegotziek 116,19 euro jasoko dute hileko, batzorde buruek beste hainbeste, eta talde politikoek, 45,47 euro hileko.



**KARGUAK** Lehen alkateordea Iban Retolaza izango da; bigarrena, Edurne Alberdi. L.Z.

**URUBURUKO TRANSFORMADOREA**

Plenoko gai zerrendatik kanpo egon arren, alkateak eztabaidatzea onartu zuen, eta Uruburuko transformadorearen kokapena izan zen saioko gairik polemikoena. Aralarrek esan zuen auzi hori aurreko agintalditik datorrela, eta kudeaketa txar batean ondorioa dela. Gaineratu zuen plenora eramango duela erabaki hori.

**LEINTZ GATZAGA**

# Jaietarako horma-irudia egiteko deia

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Irailaren 7, 8 eta 9an ospatuko dituzte Andramaixak –herriko jai nagusiak– gatzagarrek, eta egitaraua gertatzen hasita dago Kultura Saila. Jai egitarauko irudia lehiaketa bidez aukeratzea erabaki du aurten Udalak, eta gatzagar guztiei egin die dei parte har dezaten, txiki zein heldu. *Andramaixak, Leintz Gatzaga, irailak 7, 8 eta 9* leloa agertu behar du irudiak, baina gainerako baldintzarik ez dago, eta edozein estilotan marraz daiteke.

Horma-irudiak Gatzagako udaletxean utzi behar dituzte egileek hilaren 19rako, eguena. Epaimahaia udalbatzako kideek osatuko dute, eta irabazleak saria jasoko du.



**> FUTBOLA** Ipintzan, Getokuak eta Zeribarren izan dira txapeldunak **> 16**



**> ZIKLISMOA** Elgetako Kriteriumean, Mikel Nieve izan da garaile **> 18-19**



**> PILOTA** Mendizabalek antzuolarren omenaldia jaso du jaietan **> 20**



**> PLATER-TIROA** Enrike Ullibarriarana, onena Aramaioko lehian **> 21**

**FUTBOLA** > ATHLETICEKO HAUTESKUNDEAK

# Ibarreko zaleek gustuko dute txuri-gorrien presidente berria

**ENTRENATZAILEA**
Agindu bezala, Macuak Caparros fitxatu du Athleticeko entrenatzaile izateko

**BOTO ZURIA**
Ibaiganen izandako hauteskundeetan, 2.025 boto zuriak izan ziren



**PRESIDENTE BERRIA** Fernando Garcia Macua eta Ana Urkijo presidente ohia, Athleticeko kamisetarekin. ARGAZKI PRESS

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Ibarreko Athleticzaleek begi onez ikusi dute Fernando Garcia Macua aukeratu izana Athletic Clubeko presidente. Bilboko abokatuak botoen % 39,88 jaso zituen, Erkorekak baino 750 boto gehiago. Eguenean Ibaiganen izandako hauteskundeetan, bazkideen %52,19ko partaidetza izan zen; guztira, 17.276 boto eman ziren. Presidente berriak 6.888 boto jaso zituen; Juan Carlos Erkorekak, 6.138; eta Javier Gonzalezek, 2.034. Hala ere, aipagarriena egon zen boto zuri kopuru handia izan zen; egueneko hauteskundeetan, 2.025 bazkidek boto zuria eman zuten. "Argi ikusi da Athleticeko bazkideak haserre daudela; ez datoz bat hiru hautagaiekin, eta hori kontuan hartu behar du Macuak", esan digu Haritz Gallastegi kazetariak. Gallastegik Athleticen jarraipena egiten du Euskadi Irratian; hortaz, hauteskunde kanpaina bertatik bertara jarraitu du. "Uste baino garaipen estuagoa izan du Fernando Garcia Macuak; azken momentuan, Erkorekaren aldekoak mugitu egin dira, eta Macuarekiko aldea murriztu dute", dio Gallastegik.

Igor Unzurrunzaga bergararra Athleticeko bazkidea da, eta bat dator Gallastegiren berbekin: "Zaleak erreta daude; seriotasun gutxi ikusi dugu azken urteetan". Unzurrunzagak berak ere ez zuen botoa eman, eguneean kanpoan zelako. Hala ere, Macua gustuko duela esan digu: "Hauteskunde kanpaina nahasia izan da. Hiru hautagaien artean, ez neukan argi zein nuen gustukoen, baina azken emaitza gustatu zait. Oraingoz, behintzat, kanpainan esan duena hasi da betetzen".

**CAPARROS, DENEN GUSTUKO**

Hala da. Macuak Joaquin Caparros entrenatzailea ekarriko zuela agindu zuen, eta ekarri du. "Hiru hautagaietatik bik Caparros ekarriko zutela agindu zuten, hortaz, horrek zerbait esan nahi du. Entrenatzaile gogorra da, harrobiaren aldekoa; taldea suspertzen lan ona egin dezake", esan du Gallastegik Caparrosen gainean. Horretan bat datoz ibarreko zaleak: "Caparros gustuko dut; serio egiten du lan, eta bere taldeek serio jokatzen dute", dio Eneko Blanco Oñatiko Zuri Gorri Taldekoak. Unzurrunzaga ados dago: "Serioa da, langilea, eta harrobiarekin lan egiten daki".

Jokalarien fitxaketen harira, Aitor Ocio gasteiztarrak Athleticek duen gabezia nabarmenena beteko duela esan du Eneko Blancok. Hala ere, hegaleko jokalari baten beharra ikusten du, "Asier del Horno edo Garrido bezalako jokalariak". Baina Haritz Gallastegik zera galdetzen du: "Nondik aterako du dirua fitxaketak egiteko? Orain arte egin dituen fitxaketetan, 9 milioi euro gastatu ditu, eta klubeko ekonomia ez da ona, hortaz, ez dakit nondik aterako duen dirua".

**KLUBEKO FILOSOFIA**

Filosofiagatik galdetzean, oraingoz, ezer ez dela aldatuko diote: "Bazkideek erakutsi dute filosofia horrekin jarraitu gura dutela. Baliteke, gauzak oker badoaz, aldatu beharra baina, oraingoz, ez", dio Gallastegik. Blanco iritzi berekoa da. "Batzuek diote Lopez eta Ezkerro, adibidez, filosofiaren mugetatik pasa egiten direla. Hortaz, zergatik ez apurtu? Baina ni ez nago ados. Bi edo hiru atzerritar ekarri beharrean, diru gehiago gastatu eta jokalari euskaldunak fitxatu behar dira".

**ESANAK**

"Boto zuriak haserrea erakusten du; bazkideak ez datoz bat agintariekin, eta Macuak hori kontuan hartu behar du"
**Haritz Gallastegi** > Kazetaria

"Hiru hautagaietatik, bat ere ez nuen gustuko, baina Macuak erakutsi du hiruretatik anbizio handiena"
**Eneko Blanco** > Zalea

"Agindutako jokalari guztiak ekartzen badituzte, datorren urtean Athletic sailkapenean erditik gora ibiliko da"
**Igor Unzurrunzaga** > Bazkidea

**TXAPELKETA** > IPINTZA

# Getokuak nagusitu zen mutiletan, eta Zeribarren, nesketan



**TXAPELDUNAK** Getokuak taldea, egubakoitzean jasotako garaikurrekin. JOSE LUIS BEITIA

## Egubakoitzean Agorrosin futbol zelaian jokatutako norgehiagoka penaltietan erabaki zen

**Txapeldunak**

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **NAGUSIAK** | Getokuak |
| **KOPA** | Eskalibur |
| **NESKAK** | Zeribarren |
| **BETERANOAK** | Errotagain |
| **INFANTILAK, NESKAK** | Lagunak |

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Bergarako Ipintza Futbol Txapelketak baditu txapeldunak: mutilen nagusien mailan, Getokuak taldea penaltietan nagusitu zen A Ze Flaxa taldearen aurka. Nesketan, berriz, eguenean jokatutako finalean, Zeribarren taldeak Ostruka hartu zuen mendean.

**NAGUSIEN FINALA, AGORROSINEN**

Ipintzako txapelketa maiatzaren 21ean hasi zuten. Ordutik, astero jokatu dira partiduak; partidu guztiak Ipintzako zelaian jokatu dira, mutilen finala izan ezik. Hura egubakoitzean, Agorrosin futbol zelaian, jokatu zen.

A Ze Flaxa eta Getokuak taldeek jokatu zuten finala. Partidua nahiko berdindua izan zen lehenengo minutuetan; gero, minutuak aurrera pasa ahala, A Ze Flaxa taldekoek nagusitasuna erakutsi zuten. Hala, atsedena gainean zela, bi gol egin zituzten, bost minututan.

Markagailuan aurretik jarri eta partidua euren alde jartzea lortu zuten A Ze Flaxako mutilek. Baina, atsedenaren ondoren, Getokuak indartsu irten ziren Agorrosin zelaira. Lehenengo gola penaltiz egin zuen Ibai Gonzalezek. Bigarrena Alejok sartu zuen. Hala, partidua berdintzea lortu zuten Getokuak taldeko mutilek.

**BI FINALAK, PENALTIETAN**

Egubakoitzeko finala, beraz, penaltietan erabaki zen. Agorrosinen batutakoen animuekin, Getokuak taldeko atezain Markelek bi geldiketa egin zituen. Hala, 6-5 irabazi zuten.

Nesken finala ere penaltietan erabaki zen. Eguenean Ipintzako zelaian jokatutako lehian, Zeribarren eta Ostruka taldeek bana berdindu zuten; penaltietan, Zeribarren nagusitu zen, 6-5 emaitzarekin.



**ZERIBARREN** Nesken mailako txapeldunak, Zeribarrenekoak, Poperen eskutik garaikurra jasotzen. JOSE LUIS BEITIA

**SARI BANAKETA**

Egubakoitzeko partiduaren ondoren eman zituzten aurtengo txapelketako sariak. Nesketan, infantil mailan, Lagunak izan zen txapelduna, eta Botobekutz, bigarrena. Beteranoen mailan, Errotagain gailendu da aurten, Ugarrixaren aurka. Kopa Txapelketan, berriz, Eskaliburrek 8-1 irabazi zion The Purple taldeari.

Nagusien mailan, Gorka Martinezek (Getokuak) jokalari onenaren saria irabazi zuen, eta J.L. Etxanizek (A Ze Flaxa), golegile onenaren saria. Nesketan, berriz, Alanak (Bersora) irabazi zuen jokalari onenaren saria. Gainera, infantil mailako denentzat, opariak izan ziren Agorrosinen.

**ANTOLATZAILEAK, POZIK**

Aurtengo txapelketan, 33 talde lehiatu dira; guztira, 400 pertsona inguru. Antolatzaile taldekoak, BKEkoak, pozik agertu dira jokalarien jarrerarekin. Final zortzirenak arte, parte-hartzaileak eurak ibili dira epaile lanetan. Gero, antolatzaile taldeak hartu du arbitratzeko ardura. Taldeek izan duten jarrera onarengatik, pozik daude antolatzaileak.

## PARTE-HARTZAILEEK DIOTENA



**Uxue, Leire eta Irati**
Lagunak

Infantil mailan, lehenengo saria eskuratu zuten Uxue, Leire eta Iratik. "Ipintzako txapelketa jokatzen dugun bigarren aldia da; iaz, bigarren postuan geratu ginen, eta aurten, txapeldunak izan gara. Oso ondo pasatu dugu futbolean jokatzen; izan ere, asko gustatzen zaigun kirola da", esan zuten, pozik, irabazleek.



**Unax eta Xabier**
A Ze Flaxa

Xabierrek eta bere taldekideek ezin izan zuten nagusien finala irabazi: "Hala ere, ondo pasatu dugu, eta polita izan da finala", esan zuen Xabierrek. "Koadrilako lagunak elkartzen gara Ipintzako txapelketa jokatzeko. Urte mordoa da txapelketa hau jokatzen duguna", esan zigun. Argazkian, Unax semearekin agertzen da.



**Judith, Lierni eta Ainhoa**
Lagunak

"Oso ondo pasatu dugu aurtengo txapelketan; gainera, lehenengo saria irabazi dugu", esan ziguten nesken infantil mailako txapeldunek. "Futbola gustuko dugu, eta horregatik eman genuen izena txapelketan. Beste urte batzuetan ere jokatu izan dugu; ikastolako lagunak gara, eta elkarrekin jokatzen dugu", gaineratu zuten hiru neskek.

Tourra Euskal Herrira dator!



Hori dela eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAk harpidedunen artean **Euskalteleko 25 kamiseta** zozketatuko ditu.

Egubakoitzeko GOIENKARIAn emango ditugu irabazleen izenak!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara, adi egon!

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
**35 euro**
2007 bukaera arte.

Goienkaria
asteleheneen, aste bukaera osoa

**23. MENDIKO KRITERIUMA** > EUSKALDUNA SARIKO LASTERKETA

# Bakarrik iritsi zen helmugara Caja Rural taldeko Mikel Nieve

Oscar Puyol (Azpiru Ugarte) eta Andres Antuña (Wurth) sailkatu ziren bigarren eta hirugarren

Proba 85 txirrindularik hasi zuten, baina 28 bakarrik iritsi ziren helmugara, 120 kilometro eginda

**MIREIA BIKUÑA** > ELGETA

Mikel Nieve Iturralde leitzarra minutu bat eta 27 segundoko abantailarekin iritsi zen Elgetako plazan zegoen helmugara. Hala, Elgetako igoera hasi aurretik, Azpiru Ugarte taldeko Oscar Puyol eta Josu Gonzalez txirrindulariekin zuen minutu bateko errentari eusteko gai izan zen. Helmugan, 3:21:31ko denbora egin zuen Leitzako txirrindulariak.

**BERO SARGORIA**

Atzo Elgetan jokatu zen 23. Mendiko Kriteriuma goizeko hamarretan hasi zen. Euskaldun Txapelketarako puntuagarria zen probako irteera puntuan, bero sargoriari aurre eginez, 85 txirrindulari zeuden. Aurretik, lan gogorra zuten txirrindulariek: bi aldiz igo behar zuten Asentzio gaina, lehenengoan Angiozartik gora, eta bigarrenean, Elorriotik Elgetara igo ondoren. Halaber, probako 32. kilometroan, Areitio gaina ere igo zuten.

Horregatik guztiagatik, bukaerara 28 txirrindulari bakarrik iritsi ziren.

**IHESALDIAK**

Txirrindulariek Elgetatik Elorriora hartu zuten, sahiesbidetik. Han, Atxondotik Abadiñora hartu zuten. Lehenengo kilometroetan, ihesaldi saiakera antzuak egon ziren.

Hala, ihesaldi ona, eta gerora lasterketa apurtu zuena, Elorrion gertatu zen. Han, lasterketaren 70. kilometroan, Mikel Nievek (Caja Rural) eta Oscar Puyolek (Azpiru Ugarte) tartea zabaldu zuten. Bada, erreleboak ematen hasi orduko, Azpiru Ugarte taldeko txirrindularia atzeratuta geratu zen. Hortaz, Caja Rural taldeko ziklistak aurrera bakarrik egitea erabaki zuen.

Elgetako bigarren igoeran, Mikel Nieve pasa zen lehena. Haren atzetik, 30 segundora, Azpiru Ugarte taldeko beste bi kide, Oscar Puyol eta Josu Gonzalez. Une hartan, proba amaitzeko 27 kilometro falta ziren.

**Euskalduna Sariko maillota Azpiru Ugarte taldeko Fabrizio Ferrarik jantzi zuen**

**Lasterketa apurtu zuen ihesaldia Elorrion, 70. kilometroan, osatu zen**

**AZKEN KILOMETROAK**

Arrasaten, Epelen, Bergara aldera hartu zuten eta, Elgetako azken igoera hasi aurretik, Mikel Nieve zen lasterketa buru eta, haren atzetik, Oscar Puyol eta Josu Gonzalez. Bada, azkeneko zortzi kilometroetan, Jon Gonzalez atzeratuta geratu zen; azkenean, bosgarren iritsi zen helmugara.

Halaber, Xabier Aranguren Elgetako txirrindulariak ez zuen lasterketa bukatu, bizikletaren katea apurtu egin zuen-eta.

**SARI BANAKETA**

Lasterketa bukatuta, sari banaketa ekitaldia egin zen Elgetako plazan bertan. Caja Rural taldeko Mikel Nievek garaikurra, lore sorta, maillota, eskopeta eta Langarika saria jaso zituen opari modura.

Bestalde, Azpiru Ugarte taldeko Fabrizio Ferrarik jantzi zuen Euskalduna Sariko maillota. Azkenik, txirrindulari lehiatsuenaren saria Oscar Puyolek eskuratu zuen.



**SARI BANAKETA** Argazkian, Fabrizio Ferrari, Mikel Nieve eta Oscar Puyol, sariak jaso ondoren. MIREIA BIKUÑA




HASIERA Goizeko hamarretan hasi zen Elgetako lasterketa. JOSETXO ARANTZABAL




ELGETA Asentzio aldera hartu zuten txirrindulariek 93. kilometroan. MIREIA BIKUÑA

## sailkapenak

| LEHENENGOAK | |
|---|---|
| 1. Mikel Nieve | 3:21:31 |
| 2. Oscar Puyol | 3:22:58 |
| 3. Andres Antuña | 3:23:47 |
| 4. Aitor Olano | 3:24:05 |
| 5. Josu Gonzalez | 3:24:20 |
| 6. Jose Vicente Toribio | 3:24:51 |
| 7. Higinio Fernandez | 3:25:13 |
| 8. Eloy Carral | 3:25:13 |
| 9. Iban Gonzalez | 3:25:22 |
| 10. Daniel Sesma | 3:25:28 |




ASENTZIO Irudian, Azpiru Ugarte taldeko Oscar Puyol eta Josu Gonzalez. J.A




IRABAZLEA Mikel Nieve (Caja Rural), helmugara iristen. JOSETXO ARANTZABAL

**Mikel Nieve** > Irabazlea

## "Elgetako azken igoera oso gogorra eta luzea egin zait"

**M.B.** > ELGETA

**Zorionak!**

Eskerrik asko.

**Lasterketa oso gogorra izan da. Azkeneko kilometroak bakarrik egin dituzu.**

Oscar Puyolek eta biok ihes egin dugu Elorrion; baina, erreleboak ematen hasi aurretik, bakarrik geratu naiz. Hala, azkeneko kilometroak oso gogorrak eta luzeak egin zaizkit.

**Azken igoera hasi aurretik, 30 segundoko tartea zenuen. Errentari eusteko gai ikusten zenuen zure burua?**

Ez nuen oso garbi errentari eusteko gai izango nintzen. Elgeta igotzen hasi naizean, erritmo ona jarri dut. Hala. azkeneko kilometroan, minutu bateko abantaila nuela esan didate autotik, eta, orduan bai, garaipena eskuratuko nuela ikusi dut.




Mikel Nieve. M.B

**Lasterketa gogor honen ondorena, nola errekuperatuko zara?**

Orain, ondo bazkaldu, eta bihar goizean, igerilekura joango naiz, lasai-lasai.

**Oscar Puyol** > Bigarrena

## "Ihesaldi onean sartu arren, ez dut aukera izan irabazteko"

**M.B.** > ELGETA

**Ihesaldi onean sartu zara, baina ezin izan duzu lasterketa irabazi. Zer gertatu da?**

Lasterketa Elorrion apurtu da eta, zorionez, ihesaldi onean sartu naiz. Baina, berehala, ihes egin du Mikel Nievek.

**Azkeneko igoera hasi aurretik, 30 segundoko atzerapena zenuten.**

30 segundo asko dira errepideak gora egiten duenean. Hala, ezinezkoa egin zait Mikel Nievek zuen errenta murriztea.

**Nolako lasterketa izan da?**

Elgetako proba oso gogorra da. 120 kilometro eta gorabehera asko ditu. Bero handia egin du eta gainera, tarteka, haizeak gogor jo du. Hortaz, oso nekatuta eta minduta nago.



Oscar Puyol. M.B

**Helmugara iritsi zarenean, ikusi dugu izterrean min zeneukala. Zer duzu?**

Egia esan, Asentziotik jaitsi garen bigarren aldian, zaintiratua izan dut izterraren atzeko aldean. Hortaz, halamoduz egin ditut azkeneko kilometroak. Orain, ondo errekuperatu beharra dugu txirrindulari guztiok..

**ESKORIATZA KIROL ELKARTEA** > BATZARRRA

# Bazkideak egiteko kanpaina abiarazi du Eskoriatzak

Bazkide kanpaina iraileko bigarren astera arte egingo dute

Urrian ezohiko batzarra deituko du Eskoriatzak presidente berria aukeratzeko



**BILERA** Mahaian, ezkerretik eskuinera, Jabi Corbal, Manolo Muñoz eta Luis Miguel Lekuona. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA
Eskoriatza Kirol Elkarteak urteroko batzar orokorra egin zuen egubakoitzean. Bukatu berri den denboraldiko balorazioa egiteaz gain, irailean hasiko den denboraldirako elkarteak dituen asmoak azaldu ziren.

**BAZKIDE BERRIAK**
Eskoriatzak eskuartean duen proiektu nagusiena bazkide berriak lortzeko kanpaina da. Helburu nagusia "herritarrengana iristea" da, elkarteko presidente Manolo Muñozen hitzetan: "Gutunak bidaliko ditugu etxe guztietara. Gure asmoa beste 50 bazkide lortzea da; orain, 300 ditugu. Bazkide berriendako, gainera, oparitxo bat dugu".

Hala, bazkide berriak egiteko kanpaina iraileko bigarren astera arte izango da.

Halaber, egubakoitzean, bazkide kuotak igotzeko erabakia hartu zen: "Bi euroko igoera izango dute kuota guztiek denboraldi berrirako", azaldu zuen Luis Miguel Lekuona diruzainak.

**DENBORALDI BERRIRAKO ASMOAK**
Eskoriatzako presidente Manolo Muñozek irailean hasiko den denboraldirako elkarteak dituen erronka handienak zeintzuk diren azaldu zuen bazkideen aurrean.

Hala, urrian, emakumezkoen Euskal Saskibaloi Kopa Eskoriatzan joka dadin nahi dute. Halaber, areto-futboleko euskal selekzioa ikusteko aukera egongo da. Edozelan ere, areto-futboleko hitzorduaren inguruan, ez zuten data zehatzik aipatu.

**PRESIDENTE BERRIA**
Urri edo azarorako, ezohiko batzarra deituko du Eskoriatzak, presidente berria aukeratzeko. "Hamazazpi urterekin sartu nintzen elkartean. Ordutik, eskubaloi jokalaria, atletismoko ordezkaria eta presidentea izan naiz. Bada, nire bidea, hemen amaitzen da", esan du Manolo Muñoz, elkarteko presidenteak.

**MONDRA**

# Futbol eskola sortuko da irailean

Mojategiko kiroldegi berrian jokatzea ona izango dela uste du elkarteak

**A.E.** > ARRASATE
Datorren denboraldiari begira, 11 urtetako neska-mutilei zuzendutako futbol eskola sortu gura du Mondrak. Hala, Arrasateko futbol elkarteak harrobiari garrantzia eman gura dio. Gainera, bederatzi talde izango ditu Mondrak datorren denboraldian; gazte mailan, talde bakarra egongo da, eta kadete mailan, kadete txiki taldea sortuko da.

**PREFERENTE MAILA**
Preferenteko taldeari dagokionez, 2. erregional mailatik, Zabaleta, Lakunza, Jonan eta Jurado igoko dira; eta, gainera,beste bi jokalari etorriko dira. Bestalde, Alarcia, Zubikarai eta Argiderrek utzi egingo dute taldea. Taldearen ardura Igor Gordobil eta Juanina Garaik izango dute.

**800 EUROKO DEFIZITA**
Ekonomiari dagokionez, taldeak 800 euroko defizita izan du. Datorren denboraldirako, 110.000 euroko aurrekontua izango du, aurtengo aurrekontu berbera.

**ELGETAKO FUTBOL TALDEA** > BATZARRA

# Hiru egunetan erabili ahal izango dute Unbeko zelaia

Arlo ekonomikoan, aurrekontua bete egin da; datorren urtean ere 12.000 euro izango dute



**BATZARRA** Inor ez zen agertu zapatuko batzarrera; bazkaritan, berriz, 22 jokalari elkartu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ELGETA
Datorren urteari begira, Elgeta futbol taldeak Unbe zelaian astean hiru egunetan entrenatzeko aukera izango du. Horixe izango da, aurtengoarekin alderatuta, berrikuntzetako bat.

Jokalariei dagokienez, Bergarako sei jokalariak BTLS taldera joango dira; baina Eibartik 10 jokalari etorriko dira. Hori dela-eta, aurtengoa baino maila altuagoa izango du datorren denboraldiko taldeak. Hortaz, helburua lehenengo erregional mailara igotzea dela esan du Iraitz Bolinaga taldeko presidenteak.

**BALANTZE EKONOMIKO ONA**
Arlo ekonomikoan, denboraldirako zuten aurrekontua bete egin dela esan dute. Datorren urteari begira, aurrekontua 12.000 eurokoa izango da.

Gainera, laguntza eman duten lantegiak eta, batez ere, bazkideak eskertu gura izan ditu aurtengo zuzendaritzak. Oraingoz, ez dituzte bazkideen kuotak igoko (10 euro) baina gai hori zuzendaritza berriaren esku geratuko da. Izan ere, asteon, zuzendaritza berria eratuko da: jokalariek zuzendaritza utzi, eta gurasoek eta herritarrek osatuko dute.



MENDIZABAL Antzuolarren aurrean, omenaldia jaso zuen Mendizabalek; plaka bat eman zioten. JOSETXO ARANTZABAL

**PILOTA** > OMENALDIA

# Mendizabali omenaldia egin diote jaietan

Bestalde, Arrasateko pilotariek Euskadiko Herri Arteko Txapelketako finalerdietan 1-2 galdu dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Herriko jaiak aprobetxatuz, omenaldia egin zioten antzuolarrek egubakoitzean Elgetako lau t'erdiko irabazleari, Aitor Mendizabal herritarrari.

**PARTIDUAREN AURRETIK**

Partiduaren aurretik egin zioten omenaldia Mendizabali; ondoren, Andreuk eta Larrañagak Mendizabal eta Landabururen aurka jokatu zuten. Bigarren partiduan, Onsalo –Elgetako lau t'erdiko txapeldunordea– eta Irureta Muguruza eta Jauregiren aurka aritu ziren. Antzuolako Udalak Herriko plazako irudia duen plaka bat eman zion Mendizabal pilotariari.

**ARRASATE, HERRI ARTEKOAN**

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa irabazita, Arrasateko pilotariek Euskadiko kanporaketa jokatu zuten egubakoitzean Berrizen aurka. Emaitza ez zen ona izan arrasatearrentzat; izan ere, 1-2 galdu zuten. Kadete mailako Bolinaga eta Agirregabiriak lortu zuten partiduko puntu bakarra, Loidi eta Urkijori 22-13 irabazita. Gazte mailan, Arana eta Zubizarretak 13-22 galdu zuten Alberdi eta Etxenizen aurka, eta helduetan, Axpe eta Uribarrenek 11-22 galdu zuten Gonzalez eta Zabala bikotearekin.

Itzuliko kanporaketa egubakoitzean jokatuko da, Uarkape pilotalekuan, 19:30ean. Txapelketako beste kanporaketan, Maeztu eta Leitza ari dira lehian.

**ARETO-FUTBOLA** > ARETXABALETAKO TXAPELKETA

## Gaur, azken jardunaldia, eta etzi, finalerdiak

Goiko postuetan, TPM, Cipris, Fonta Sport eta Somos 4 daude lehian; La Elite azkeneko postuan da

**A.E.** > ARETXABALETA

Gaur jokatuko dute Aretxabaletako Areto-Futbol Txapelketako azkeneko jardunaldia. Arratsaldeko bostetan hasita, Arlutz atzeko kantxan lehiatuko dira txapelketan izena eman duten zortzi taldeak.

**LAU NORGEHIAGOKA**

Lehenengo norgehiagokan, Cipris eta Drink Team lehiatuko dira; gero, K23 eta Somos 4; ondoren, La Elite eta Fonta Sport eta, azkenik, arratsaldeko zortzietan, SPAT eta TPM.

Bestalde, egubakoitzean, seigarren jardunaldia jokatu zen. Ondokoak izan ziren emaitzak: La Elite, 3- Somos 4, 8; TPM, 3- Drink Team, 3; Spat ,1- Cipris, 7; eta Fonta Sport, 3- K23, 1.

Egubakoitzeko emaitzak kontuan hartuta, sailkapeneko goiko postuetan, TPM, Cipris, Fonta Sport eta Somos 4 geratu dira. Beheko postuetan, berriz, La Elite, Drink Team eta K23 daude.

Hortaz, gaurko jardunaldiak erabakiko du zeintzuk egongo diren eguaztenean jokatuko diren finalerdietan. Lehenengoa arratsaldeko zeietan jokatuko da (lehenengoa laugarrenaren aurka), eta bigarrena, zazpietan (bigarrena hirugarrenaren aurka).

Finalerdietako irabazleek final nagusia jokatuko dute, uztailaren 20an, egubakoitzean, arratsaldeko zazpietan.



TXAPELKETA Arlutz atzeko kantxan jokatzen da txapelketa. JOSETXO ARANTZABAL

**PLATER-TIROKETA** > TXAPELKETA

# Enrique Ullibarriarana, nagusi Aramaion

Angel Ullibarriarana eta Aitor Abarrategi sailkatu ziren bigarren eta hirugarren tokietan

**MIREIA BIKUÑA** > ARAMAIO

Zapatu arratsaldean jokatu zen Aramaioko Aixola auzoko Santa Marina jaietako plater-tiroketa txapelketa. Hamalau plater apurtuta, Aramaioko Enrique Ullibarriaranak irabazi zuen txapelketa. Bigarren eta hirugarren tokietan, hamahiru plater apurtuta, Angel Ullibarriarana eta Aitor Abarrategi sailkatu ziren.

**PARTE-HARTZAILE GUTXI**

Eguraldi onaren eraginez, tiratzaile gutxi elkartu zen txapelketan. "Pena izan da, baina hamasei tiratzaile bakarrik etorri dira txapelketara", esan zigun Jose Ignazio Ullibarriaranak, "baina, garai honetan eta eguraldi onarekin, beste plan batzuk egiten dira. Horrez gain, bero sargoria izan dugu". Edozelan ere, tiratzaile gutxi agertu arren, giro bikainean jokatu zen Kurtzetan plater-tiroketa saioa.

Aixola auzoko txapelketa arratsaldeko bostetan hasi zen . Parte-hartzaile bakoitzak gorri koloreko hamabost plater zituen botatzeko.



PARTE-HARTZAILEA Argazkian, txapelketako tiratzaile bat. JOSETXO ARANTZABAL

# Debagoieneko
# WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

ARETOAK
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

AROZTEGIAK
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
**TOLDOS LETE**
**www.toldoslete.com**

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
**SETALDE**
www.setalde.com

ELKARTEAK
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

ERROTULOAK
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com
**DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA**
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
**ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com
**LA PUERTA AL INGLES**
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
**HARRILUR**
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
**URKO MANTENIMIENTO, S.L.**
http://www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

KALAMUA
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

LANDETXEAK
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

LEIHOAK
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA… TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEAK
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



> **AUZOAK**
Bergarako hiru auzotako jaiak ospatuko dituzte asteotan > **27**



> **BIDAIA**
Oñatz dantza taldekoak Idahora doaz uztailaren 25ean > **27**



> **ELKARRIZKETA**
Goiatz Aranari elkarrizketa, aisialdiaz eta beharraz > **29**



**SINADURA** Egubakoitzean sinatu zuten ezkongaiek hitzarmena. JOSETXO ARANTZABAL



**GONBIDAPENAK** Domekako ezkontzarako gonbidapenak banatu zituzten. JOSETXO ARANTZABAL



**KORTEJUA** Arreoa gurdiz eraman zuten Herriko plazaraino. JOSETXO ARANTZABAL



**ELIZKIZUNA** Jende asko batu zen ezteiak ikusteko. JOSETXO ARANTZABAL

### ANTZINAKO EZKONTZA

# Gora ezkonberriak!

## BI EGUNETAN

Bi zatitan egin zuten ezkontza; egubakoitzean, hitzarmena sinatu, eta atzo, elizkizuna eta jaia

## ANTOLATZAILEAK

Anelkarrek antolatu du, jaietan parte-hartzea bultzatzeko eta 3. munduko herrialdeei laguntzeko

**EDURNE BURGAÑA** > ANTZUOLA

Ezkondu dira Pedro Martin de Olaran eta Josefa Maria Madariaga. Antzuola 1882. urtera itzuli da asteburuan, bi gazteen arteko ezkontza egiteko. Izan ere, garai bateko euskal ezkontza egin dute jaien barruan.

**SINADURAK**

Egubakoitzean izan zen ezkontzaren lehenengo zatia. Senar-emaztegaiak, senitartekoek lagunduta, Herriko Etxean bildu ziren. Han, udaletxeko notarioak ezkontzako hitzarmena irakurri zien, eta sinatu egin zuten biek. Herritar asko bildu zen bi gazteen arteko loturaren lehenengo pausoa ikusteko.

Gero, sinaduren ostean, domekarako gonbidapenak banatu zituzten antzuolarren artean.

**ATZO, EZKONTZA**

Atzo, domeka, izan zen ezkontzaren egun handia. Antiguako auzotik abiatu zen kortejua 18:00etan: hau da, herriko agintariak, elizgizonak, arreoa, ezkongaiak, eta horien senitartekoak eta lagunak. Herriko plazara arteko bidea egin zuten guztiek batera, eta han, ezkontzako arreoaren dotea irakurri zuen notarioak. Horren atzetik, elizkizuna etorri zen. Eguraldi ederra egiten zuen atzo, eta berriro ere herritarren begiradapean egin zituzten elizkizunak.

Dantzaldia eta jan-edanak 19:30ean hasi ziren. Erdizka Lauetan taldearekin, ezkontza ondorengo dantzaldia egin zuten. Pintxoak eta kupeleko sagardoa hartzen egon ziren bildutakoak.

**HELBURU BIKOITZA**

Anelkar elkarteak antolatutako ekimena izan zen ezkontza. Bi helburu lortu nahi dituztela azaldu dute. Batetik, herriko jaietan parte-hartzea bultzatzea, ondarea berreskuratuz eta Antzuolako jaietan giroa alaituta.

Bigarren helburua da 3. munduko herrialdeetan —Brasil, Senegal eta Kongo— hainbat proiektu aurrera eraman ahal izateko behar den dirua lortzea.

**JAIAK** > ANTZUOLA

# Aurten ere, Mairuaren Alardeak jende asko erakarri du

Zapatuan egin zen alardea, 18:00etan, eta plaza bete egin zen; orokorrean, giro polita egon da Antzuolako jaietan

**EDURNE BURGAÑA** > ANTZUOLA

Antzuola jaietan egon da joan den asteburuan. Eguenean hasi ziren ospakizunak, eta atzo amaitu. Eguraldia lagun, giro ederra egon da herrian, eta, beste behin ere, Mairuaren Alardeak jende mordoa bildu du Herriko plazan.

**PARTE-HARTZE HANDIA**

Eguenean bota zuten txupinazoa, 20:30ean. Horrekin batera, kanpaiak eta udalbatzaren dantza saioa egin zuten plazan. Jaien hasiera zen, eta antzuolarrak pozik zeuden.

Egubakoitzean, 09:55ean hasi zuten eguna, etxafleroen jaurtiketa eta txistularien goizeresiarekin; eta Jo ta Hanka taldearekin amaitu zuten, Zurrategin.

Zapatuan, umeendako herri kirolak zeuden antolatuta, eta ez zuten hutsik egin herriko txikienek. 11:00etan hasi behar bazen ere, berandutxo hasi ziren. Taldeak antolatu barik zeuden, eta, beraz, ume bakoitzak nahi zuen jokoan parte hartzen zuen: txingak eroaten, trontzan, soka-tiran eta beste hainbat kiroletan. Umeak gustora ibili ziren, eta giro polita lortu zuten guztien artean.

Mairuaren Alardea egin zuten arratsaldean. Herriari bira eman eta gro, plazan geratzen dira. Bertan, Alardeko kapitainak agindak ematen zituen, eskopetak nola jarri-eta. Astoak daroen kanoiarekin, bi kanoikada bota zituzten, eta antzuolarrak, emozionatuta; azken finean, tradizioa da.

Herri afaria ere egin zuten. Eguraldi ona egiten bazuen ere, arkupetan egon ziren, eta argi gutxirekin, dena esan behar bada. Baina tripa bete zuten, paella, otarrainxkak eta oilaskoarekin.

Atzo amaitu ziren jaiak. Aintzinako autoen ibilaldia eta erakusketa egin zuten plazan, eta baita Larrain dantza ere. Azken hau gaizki egiteko aitzakiarik ez zegoen: ikastaroa egon da aurretik.



**ALARDEA** Mairua asto gainean eramaten dute. JOSETXO ARANZABAL

**EMANALDIAK** > MUSIKAIRE

# O'Carolanen folka, Allwood Smith Alltet eta Gorakada teatroa, Musikairen

Datorren asteburuko egitarauan, musika kontzertu bi eta kale antzerkia daude

**E.B.** > BERGARA

Elorrion, urtero, munduko artista asko biltzen da, Musikaire jaialdiaren barruan. Herriko txoko ahaztuek hartzen dute protagonismoa, bertan izaten dira-eta emanaldiak; doan, gainera. Ekainaren 30an hasi zen jaialdia, baina hona hemen datorren asteburuko hitzorduak.

**AZKEN BI ASTEBURUAK**

Egubakoitzean, O'Carolan taldearen emanaldia egongo da, Loudesen, 22:30ean. Zaragozatik etorritako taldea da, eta folka egiten dute. Sei musikarik osatzen dute taldea, eta kalitate handiko kontzertuak egiten dituzte. *La llave de los sueños* lan berria aurkeztuko dute Elorrion.

Zapatuan, hilak 22an, Allwood Smith Alltet taldearen kontzertua egingo da, Gaztean, 22:30ean. Farris Smith ahotsa jarri eta kontrabaxua jotzea arduratzen da, eta Gulliver Allwood, saxo altua jotzeaz. AEBetatik eta Britainia Handitik datoz.

Domekan, antzerkia izango da protagonista. Gorakada Teatroak ikuskizuna egingo du, 19:30ean, frontoian.Euskal Herriko talde horrek aktoreen antzezpena, txotxongiloen manipulazioa eta zuzeneko musika eta abestiak batuko ditu. Ekialdeko printze baten istorioa kontatuko dute, Veneziako kartzela batean preso dagoena.

Hurrengo asteburuan izango dira azkeneko emanaldiak: egubakoitzean, Elkano Browning Cream; zapatuan, New York Ska Jazz Essemble, eta domekan, Juan Manuel Cañizares.




**KARTELA** Musikaire jaialdiaren aurtengo irudia. GOIENKARIA


PUNTU ZORAGARRIAK DITUZU
Ordaindu kutxako zeure kreditu-txartelarekin, puntuak batu eta oparia aukeratu.
Erabil itzazu kutxako zure txartelak, eta puntuz josiko zara. Eta opariz!
Ikus nolakoak diren www.kutxa.net-en.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



# III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**EGUZKIA GURE ESKUETAN.** Portugalgo Alentejoko hondartza batean ateratako iluntze izugarria. Eguzkia gure eskuetan izateko aukera izan genuen. Aurten.... non gorde ote da eguzki jauna? /Argazkia: Nerea Agiriano /Eskoriatza



**TAJ MAHAL.** Rosa Seijo eta Pedro Barbero agertzen dira argazkian, Indiara egin zuten bidaian Taj Mahal bisitatu zutenekoa. Munduko Mirari aitortu dute aurten. /Argazkia: Rosa Seijo /Aretxabaleta



**SEGOVIAKO AKUEDUKTOA.** Argazkia uztailaren 8an egindа dago Segoviako akueduktoan; Eskoriatza K.E. Salamanca eta Segoviara antolatutako denboraldi bukaerako bidaian. /Argazkia: David Garcia /Eskoriatza



**INDIAKO EMAKUMEA.** Indiako basamortuan ateratako argazkia. "Argazkia begiratzen dudan bakoitzean, akordatzen naiz, zelan irakatsi zigun jende hark, pobrezia ere sekulako poztasun eta duintasunarekin zela bizi daitekeen", dio egileak. /Argazkia: Jaione Ibarguren /Arrasate

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2007ko irailaren 17a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 1eko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:





- **1. saria: Olympus E-400 reflex** argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**Babeslea:**

kutxa

**Laguntzaileak:**

kiñu argazkilariak

Arrasate Bidaiak

GURE AMETSA JATETXEA

JAIAK > BERGARAKO AUZOAK

# Eguaztenean Santa Marina eguna ospatuko da izen bereko auzoan

Santa Marina jaien azkeneko eguna domeka izango da; asteburu horretan bertan, Basalgo auzoko jaiak hasiko dituzte, makala jasotzen

Santiago jaiak izango dira uztaileko azkenak Bergarako auzoetan; Goimendi auzoan, hilaren 28an eta 29an, ospakizunak egingo dituzte



**BOCCIA** XV. Boccia Txapelketa egingo dute Santa Marinan, egubakoitzean 17:00etan hasita. GOIENKARIA

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

Uda hasi da, eta, honekin batera, herrietako jaiak ere bai. San Juanak, San Pedroak, San Martinak... eta, ahaztu barik, auzoetako jaiak. Etzi, Santa Marina eguna ospatuko da Bergarako izen bereko auzoan, baina egitarauan hurrengo egunak ere sartzen dira. Hona hemen datozen egunotako hitzorduak.

**EGUENETIK ZAPATURA**

Eguaztenean, Santa Marina eguna ospatzeko meza egingo dute 19:00etan Eliza Nagusian. Gero, Aritzeta abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da.

Eguenean, blues gaua ospatuko dute Agorrosinen. 22:00etan hasiko dira emanaldiak.

Egubakoitzeko egitaraua zabalagoa izango da. 11:00etan, umeendako kukainak egingo dituzte Miguel Altuna institutu berrian. Arratsaldean, XV. Boccia Txapelketa egingo dute, 17:00etan hasita, eta ordu berean, petrikolaren dastatzea egingo dute auzoko tabernetan.

Kapoeira erakustaldia ere egingo dute, 20:00etan, eta 21:30ean, herri afaria dantzaldiarekin, Agorrosinen.

Zapatuan, hilak 21, txirrindulariek hitzordua edukiko dute. Izan ere, XVI. Santamarinako Txirrindularitza Saria jokatuko da, 16:00etan hasita. Baina bizikleta gainean ibili behar direnek ere edukiko dute zer ikusi eta gozatu. 17:30ean, buruhandiak eta erraldoiak irtengo dira kalera, eta ordu berean, petrikola dastatzeko aukera egongo da auzoko tabernetan.

Eguna amaitzeko, disko festa egingo dute Matxiategin, 23:00etan hasita.

**BASALGO ERE, JAIETAN**

Domekan amaituko dira Santa Marina auzoko jaiak. Bizikleta martxa egingo dute 18:30ean, eta gero, indarrak berreskuratzeko, ume, gazte eta nagusiendako txokolatada egongo da.

Basalgo auzoko jaiak ere ospatuko dituzte, zapatuan hasita. Egun horretan, jaiak hasteko, kanpaiak joko dituzte, eta etxafuegoak bota, 09:00etan. Gero, makala jasoko dute.

Bertso afaria ere egingo dute 21:30ean. Bertan, Joxe Agirre eta Amets Arzallus bertsolariak, eta soinujoleak egongo dira. Afarira joan nahi duenak eguena baino lehen izena eman beharko du Iraho edo Mekolalde tabernetan.

Domekan, hilak 22, meza nagusia egingo dute, 11:00etan. Ordubete geroago, 12:00etan, 25. Txirrindularien Basalgo Igoera egingo dute; nahi duten gatzetxo guztiek parte hartu ahal izango dute. 12:30ean, pilota partiduak hasiko dira. Lehenengoan, Bergarako pilota eskolako gazteek jokatuko dute, eta bigarrenean, goi mailako afizionatuek. Gero, erromeria egongo da, Alai taldeak eta Xapre eta Zarra soinujoleek alaituta. 14:30ean, auzotarren bazkaria egingo dute.

**GOIMENDIN, SANTIAGOAK**

Basalgo auzoko jaiak Santiago egunean amaituko dira, eguaztenean, hilak 25. Meza egingo dute 11:30ean, eta gero, luntxa eta umeendako jolasak.

Santiago jaiak ospatuko dituzte gero, Elgeta eta Bergara artean dagoen Goimendi auzoan. Hilaren 28an eta 29an izango dira ospakizunak.

Zapatuan, hilak 28, 21:30ean jaiak hasiko dira, eta berakatz zopa jateko aukera egongo da auzoko plazan. 22:30ean, erromeria egingo dute Laja II.a eta Unai Narbaizarekin.

Domekan, eguna hasteko, meza egingo dute 11:00etan. Soka dantza egingo dute gero Kezka dantza taldearekin, 12:00etan hasita. Bertsolariak ere arituko dira Santiago jaietan. Joxe Agirre eta Imanol Lazkano ariko dira oholtza gainean, 12:30ean hasita, eta gero, Epelde eta Lutxurdixo ibiliko dira Goimendiko giroa alaitzen.

Herri kirolen txanda izango da arratsaldean. 18:00etan hasita, Ugaitz Mugertza eta Elorriaga aizkolarien arteko norgehiagoka jokatuko da lehenengo, eta gero, Haimar Irigoien harri-jasotzailea lanean ikusiko dugu.

18:30ean, bola-joko txapelketa hasiko da, eta 19:00etan, berriro ere Agirre eta Lazkano bertsolariak ariko dira.

Jaiak amaitzeko, gauerdira arte erromeria egongo da Epelde eta Lutxurdixorekin.

DANTZAK > OÑATZ TALDEA

## Oñatiko Oñatz dantza taldekoak Idahora joango dira datorren astean, hilaren 25ean

Dantza taldeko 38 lagun joango dira Boisera, San Inazio jaietara; abuztuaren 3an bueltatuko dira herrira

**E.B.** > OÑATI

Oñatiko Oñatz dantza taldeak bidaia egingo du datorren astean. AEBetara doaz, Idahoko hiriburura, Boisera, San Inazio jaietan dantza egitera.

Uztailaren 25ean irtengo dira AEBetara, eta abuztuaren 3an berriro bueltan etorriko dira. Taldeko 38 kide doaz: 30 dantzari, lau txistulari eta bi trikitilari pare. Hiru dantza saio egingo dituzte.

**OÑATIARREK, OÑATIKOA**

Baina ez da izango Idahon Oñatiko dantzak ikusiko dituzten lehenengo aldia. Orain 28 bat urte, amerikarrak etorri ziren Oñatira, eta alkateari galdetu zioten ea posible zen Ameriketan herriko dantzak egitea. Harrezkero, hemengo dantzak egiten dituzte bi taldek: batetik, Oinkari taldea, eta bestetik, Oñati izenekoa. Bigarren hori hamar lagunek osatzen dute, eta bakarrik Oñatiko dantzak egiten dituzte.

Baina oñatiarrek Oñatiko dantzak egingo dituzten lehenengo aldia izango da aurten. Ez dituzte, baina, herriko dantzak bakarrik egingo: Oñatiko dantzez gain, Bizkaikoak ere izango dira oinarri, baina Gipuzkoako eta Nafarroakoak ere tartekatuta.

Dantzariek oparia eroango dute Boisera: Iñaki Jauregialtzo zeramista oñatiarraren eskultura batzuk.

JAIALDIA > MUSIKA ETA DANTZA

## Folklore jaialdia egingo dute hilaren 24an Monterronen

Mexiko eta Albaniatik etorritako talde banaren ikuskizunaz gozatu ahal izango da

**E.B.** > ARRASATE

Aurten ere, folklore jaialdia egingo dute Arrasateko Monterron parkean. Hilaren 24an izango da, 22:30ean hasita, eta, urtero moduan, atzerritik etorritako bi talderen emanaldiak izango dira. Doakoa izango da ikuskizuna.

**NORBERE HERRIKO FOLKLOREA**

Mexikotik etorrita, Colima Unibertsitateko ballet folklorikoa ariko da. Orain dela ia bi hamarkada sortutako taldea da, eta Mexikoko espresio artistikoak ondo adierazten ditu.

Albaniako taldea izango da bigarrena. Konpainiaren helburu garrantzitsuenetako bat Albaniako lehengo eta oraingo konposizioak erakustea da. Emanaldiak aberastasun handia dauka, bai instrumentu aldetik eta baita dantza aldetik ere. Albaniako hainbat lekuko folklorea erakusten dute.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Jose Antonio Loidi.** Irungo Udala. Euskaraz egiten diren ikerketak bultzatzeko beka. Ikerketa arloak honakoak dira: filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Epea: irailaren 21a.

**> Kazetaritza praktikak.** *Berria*. Kazetari gisa prestakuntza teorikoa eta praktikoa hartzeko beka. Epea: irailaren 9a.

**> Administrazio Publikoa.** IVAP. Unibertsitateko titulazioa duten pertsonak Administrazio Publikoaren esparruan prestatzeko eta ikerketak bultzatzeko bekak. Epea: uztailaren 23a.

### EKINTZAK

**> Elkartrukea.** Donostiako Udala. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Donostiako eta Wiesbadeneko 14tik 18 urte artera bitarteko europar gazteen elkartrukea burutuko da abuztuaren 11tik 19ra.

### IKASTAROAK

**> Solid Works.** Gipuzkoako Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala. Solid Workseko ikastaro aurreratua, abuztuaren 2tik 22ra arte. Epea: abuztuaren 2a.

### LEHIAKETAK

**> Argazkilaritza.** Eraiki Dantza Taldea eta Irungo argazkilari elkartea. Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiko I. Argazki Lehiaketa. Epea: irailaren 17a.

**> Gomendatzen dizut.** Oporraldien gomendioak bidali *www.aizue.com* blogera. Epea: irailaren 30a.

### LANA

**> Zuzendari pedagogikoa.** Oteic taldea. Iruñerriko ikastola batean hezkuntza proiektua zuzentzeko eta dinamizatzeko zuzendaria. Epea: uztailaren 27a.

**> Gizarte hezitzailea.** Lorratz Elkartea. Gizarte hezitzaile bat Olaberriako Ludotekarako. Epea: uztailaren 19a.

**> Irakasleen lan-poltsa.** Debabe Udal Euskaltegien mankomunitatea. Kontratazio berrietarako eta ordezkapenetarako. Epea: uztailaren 20a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

**Arrasateko** Erguin auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldea eta bi balkoi. Oso eguzkitsua da, etxeak kanpoaldera ematen du. 72 $m^2$. 660 46 47 24.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko gertu. Oso polita. Eguzkitsua. 685 72 40 30.

**Bergaran.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz berritua. Gas bidezko berogailu indibiduala. Prezio oso interesgarria. Deitu: 21:00-23:00. 943 76 19 39.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean, guztiz berritua. 73 $m^2$, 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 615 70 99 18.

**Guardia (Laguardia).** 80 $m^2$. Sukaldea, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 $m^2$-ko ganbara. Jantzita. Hirigunean. Eguzkitsua. Prezioa adosteko aukera. 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan 93 $m^2$-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, estudioa, ganbara eta garaje handia. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 53 42 10.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. 4 logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 617 85 85 41.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. Berriztatuta. Ganbara eta garajea. 3 logela. Prezioa adosteko. 656 74 80 47.

**Gandiako hondartza.** Apartamentua errentan, abuztuko bigarren hamabostaldian eta irailean. Bi logela, igerilekua. 635 31 26 11.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza errentan ematen da. Lau logela ditu. 630 54 57 38.

**Arrasate.** Etxebizitza alokagai daukat erdialdean. Logela, sukaldea eta egongela ditu; bikote batendako aproposa. 530 euro. 619 34 88 52.

**Arrasate.** San Andres auzoan ikasleendako etxebizitza errentan ematen dut. 943 79 81 05.

**Cauterets.** Lau pertsonarendako apartamentua errentan Frantziako Pirinioetan. 10 euro pertsona eta egun bakoitzeko. 625 70 61 91.

**Jaca.** Urbanizazio batean dagoen etxea errentan ematen da. 2 logela. Igerilekua, squasha, sauna, jacuzzia eta gimnasioa dauzka. 609 47 86 91.

**La Barrosa-Chiclana (Cadiz).** Irailean apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Loredo (Kantabria).** Apartamentua alokagai daukat. Bi logela ditu, eta hondartzatik bost minutura dago. Deitu 679 35 29 70 edo 943 79 81 38 telefono zenbakietara.

**Marina D'Or.** Apartamentua alokagai daukat Marina D'Orren (Oropesa). Aire girotua, garajea eta igerilekua dauzka, eta hondartzaren alboan dago. 610 92 93 15 edo 943 79 93 80.

**Oñati.** Olakuan, 2 logelako etxebizitza. Ikasturterako bakar-bakarrik. 660 40 06 75.

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan abuztuaren lehenengo hamabostaldian. Hondartzatik 100 metrora. Igerilekua eta aparkalekua ditu. 659 72 77 72.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Parking eta igerilekuarekin. Abuztua eta iraila. Deitu 943 79 48 82 edo 605 75 61 69 zenbakietara.

**Pinedan** (Tarragona) apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta Port Aventuratik gertu dago. Igerilekua dauka. 637 22 78 82.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Arrasate.** Etxebizitza hartu nahi dut errentan Arrasateko edozein tokitan. 690 28 91 89.

**Debagoiena.** Etxebizitza txiki bat errentan hartuko luke bikote batek. 655 72 27 61.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu 655 70 30 37 edo 676 59 66 38 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Logela bat alokairuan hartuko nuke. Dietu 667 56 13 24 zenbakira.

**Eskoriatza.** Logela bat behar dut hurrengo kurtsorako. Xabi. 667 25 58 19.

**Eskoriatzan** etxebizitza bila nabil datorren kurtsorako. Gela bakarra beharko nuke eta beste ikasle batzuekin konpartituta. 667 25 58 19.

**ARRASATE**

**KANPAZAR jatetxeak barran zerbitzariak behar ditu. 4 egun lan, 2 jai. 669 30 26 86**

**BERGARA**

**Estetizista behar da. Irailean hasteko. 669 00 38 43**

**DONOSTIA**

**Hortz-protesigilea behar da laborategi batean. Espezialitatea: protesi finkoak 667 80 08 13**

## 2/ GARAJEAK

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Deitu 647 08 00 16 zenbakira.

**Arrasate.** Garaje itxia erosiko nuke San Andresen. Deitu 699 49 14 32 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia emango nuke errentan Errekabarren kalean. 943 79 40 19.

**Arrasate.** Ferixalekuko aparkalekuan dagoen garaje bat errentan ematen da. Deitu 605 74 52 02 zenbakira.

**Bergara.** Garajea errentan Ibargarai 38an. Deitu 943 76 74 19 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

**Bergara.** 140 metro koadro ditu, bi solairutan. Herriaren erdialdean dago eta sukalde eta industria aparailuz hornituta dago. Elkarte baterako aproposa da. 645 00 71 46.

**Lokala salgai** Aretxabaletako erdialdean. Kafetegia izateko egokia. 290.000 euro. Deitu 635 72 59 40 telefonora.

**Entseatzeko lokala.** Aretxabaletako gazte talde batek entseatzeko lokal bat behar du, inguruan. Deitu 655 73 15 26 edo 649 22 22 98 zenbakietara.

## 4/ LANA

**Aretxabaleta.** Emakume bat behar da haurrak zaintzeko. 610 33 67 04.

**Aretxabaleta.** Emakumea behar da haurrak eskolara eramateko. 610 33 67 04.

**Arrasate.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta edadeko pertsona bati laguntzeko. Irailetik aurrera. Goizetan bi ordu. 657 79 07 39.

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 08:00etatik 15:00etara. 639 03 43 58.

**Bergara.** Gizon nagusia iluntzeetan zaintzeko pertsona behar da. 619 88 51 95.

**Bergara.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 615 76 65 55.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da dendari lanak egiteko, garbiketak egiteko, edo umeak zein edadetuak zaintzeko. 652 71 32 12.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 943 08 12 80.

**Bergara.** Emakume bat gertu dago lana egiteko, goizetan: garbiketa lanak egiten edo umeak zaintzen. 639 02 00 81.

**Bergara.** Emakume bat gertu nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 659 35 09 30.

**Bergara.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. 637 08 66 53.

**Bergara.** Umea edo nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. Orduka. Telefonoa: 637 02 07 11.

**Debagoiena.** Emakume bat eskaintzen da arratsaldeetan lan egiteko garbiketan, edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzen. Abuztuan ere lan egiteko prest. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Mutil gazteak lan egingo luke eraikuntzan edo zerbitzari gisa. Paperak ditut. 628 76 57 34 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska frantziarra eskaintzen da frantses eskolak emateko. 652 71 32 12.

**Debagoiena.** Neska gaztea lan egiteko prest. 636 31 15 36 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. 659 35 09 30.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. 678 80 11 54.

**Debagoiena.** Sukaldaritzan lan egiteko gertu nago, egunero edo aste bukaeratan. 628 72 25 07.

**Debagoiena.** Umeak zein nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. 659 37 41 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

**Goi mailako ingeniari** industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea...Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Oñati.** Uztailean eskola partikularrak emango nituzke. Irakaskuntzan diplomatua naiz. Eskarmentu handia. Telefonoa: 666 21 73 48.

## 6/ MOTORRA

**Motorra** saltzen dut. BMW-f650. Egoera onean. Maletak dauzka. 1999koa. 3.000 euro. 607 80 34 40.

**Polo GT.** 1992koa. IAT (ITV) 2008 arte pasatuta. Telefonoa: 639 57 19 88.

**Seat Alhambra** Sport monobolumena salgai. Egoera onean. 653 71 04 56.

**Seat Ibiza** salgai. Diesela. SS-AT. 685 73 79 65.

**Peugeot Expert** furgoneta salgai. Egoera onean. 3.200 euro. 650 96 50 43.

**Bandit 600** motozikleta salgai. 13.000 km. Matrikula: SS-7314-AU. 658 71 48 29.

## 7/ ANIMALIAK

**Katua galdu** da Oñatin. Martitzenean galdu zen. 'Emili' izena du; zuria da eta begi argiak ditu. Azkenekoz, Bidebarrietan ikusi zuten. 667 91 55 90.

## 8/ DENETARIK

**Astrolon teleskopioa** salgai. 943 79 41 31.

**Umearendako** segurtasun aulkia, autoan erabiltzeko. 943 79 41 31.

**Egurra** salgai beheko suarendako. Bi kamioi. 945 44 51 11.

**Egurrezko** mahaiak eta aulkiak salgai. Prezio interesgarria. 607 46 83 66.

**Kronometro profesionala** salgai. Berria. 200 euro. (Nerea). 943 79 68 18.

**Mahai** obalatua salgai. 1,36 x 0,92 cm ditu, eta luza daiteke. 200 euro, negoziagarriak. 617 17 15 88.

**Maison gitarra** elektrikoa saltzen dut, Les Paul estilokoa, beltza. Funda eta kablearekin. 240 euro. 648 06 79 85.

**Mendiko bizikleta** salgai. BH markakoa. Egoera nean. 100 euro. 686 20 03 31.

**Zodiac txalupa.** 3,80 metro luze eta 1,72 metro zabal. 25 ZPko motorra. 665 70 36 49.

**Bergara.** Zilarrezko pultsera zabal bat galdu dut Santa Marina parrokian. Telefonoa: 943 76 24 35.

**Urrezko belarritako** bat galdu nuen zapatu eguerdian Arrasaten, udaletxeko plazan. 649 72 15 49.

**Uztailak 16: 138. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

## Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 16, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**BERNARDO ATXAGAren, "MARKAK", azken liburuaren 2 ale (bakoitzari bat emango zaio).**
- Jon Irizar Elkoro (Bergara)
- Idoia Esnaola Etxeberria (Eskoriatza)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**139. zozketako saria**

**EUSKALTELeko 25 kamiseta**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51 09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota: 35 euro 2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 12



**> 23. Elgetako Mendi Kriteriuma 'Harmailatik'-en**
**21:15**

Euskalduna Txapelketaren barruan, Mendi Kriteriumaren 23. ekitaldia jokatu zen atzo Elgetan. Txirrindulari proba aztergai, gaur.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Ikusten.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Bizitegia.
**16:15** Erreportajea:Lesakako banda.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta lur.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Erreportajea: Baztan solasean.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Berriak.
**22:15** Ikusmira.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Hasiberriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



**> Gaurkotasunezko gaiak 'Berbaire' saioan**
**21:47**

Ikasturte politikoaren azken txanpan, gaurkotasunezko gaiak izango dituzte aztergai *Berbaire*-n gaur, Gorka Etxaberekin.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmaillatik.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean .
**18:15** Bizitegia.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Harmaillatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Erreportajea:Baztan solasean
**21:15** Berbaire.
**21:45** Berriak.
**22:15** Harmaillatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



**> Antzuolako jaien inguruko saio berezia**
**20:47**

Asteburuan Antzuolako gertatutakoa jarraitu ahal izango duzue gaur iluntzean. Protagonisten iritziak eta ekitaldietako irudiak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmaillatik.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Teknopolis.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Jaiak: Antzuola.
**21:45** Berriak.
**22:15** Berbaire.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ur eta lur.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Hasiberriak.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 15




**> Musikarako tartea eguenero, 'Musikantoi'-n**
**20:47**

Ixone Serranok bideoklip berrienak eta euskal musika taldeen gainean sortutako albisteak ekarriko dizkigu *Musikantoi* saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Jaiak:Antzuola.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa .
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Bizitegia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Musikantoi
**21:15** Berbaire.
**21:45** Berriak.
**22:15** Didjeridu.
**22:45** Berriak.
**23:15** Erreportajea.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 16



**> Ibarreko informazioa, Goiena Telebistan**
**14:45, 21:45**

Ibarrean gertatutako albisteak jarraitzeko aukera duzue egunero GOITBn, Larraitz Zeberio (irudian) eta Goiatz Aranaren eskutik.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Musikantoi.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Jaiak:Antzuola.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hitz bitan.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Aquariumera joateko sarrerak**
**Goiz osoan**

Donostiako Aquarium-erako sarerak eskuratzeko aukera dago. 943 71 17 31 telefono zenbakira deituta, zozketan parte hartzeko aukera dago. Udal Kirol Sailaren oparia da, Musakolaren 30. urteurrena ospatzeko.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Agenda
Bainutokiekin konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiako Aquariuma.
Liburu gomendioak
Zozketak
Zorion agurrak
Efemerideak
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**14:00** Uda Giroan (errepikapena)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena)

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

## gertutik



Goiatz Arana
Kazetaria

### "Beste era bateko albisteak izaten dira uda partekoak"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Ormaiztegikoa sortzez, Goiatz Arana kazetariak bost urte egingo ditu laster Goienan lanean. Egun, GOITBko erredaktore burua da. Horrez gain, eguerdiko albistegia berak aurkezten du, 14:45ean. Arrasatera lanera etorri aurretik, Teledonostin eta Euskadi Gaztean ibilitakoa da.**

**Uda partean, zaila egiten da albiste freskoak topatzea?**

Egia esan, ikasturtea amaitzearekin batera, beste dinamika baten sartzen gara albisteei dagokienean ere. Ohiko agendatik kanpora dauden albisteak landu beharra daukazu, arinagoak, freskoagoak agian. Beste era bateko albisteak izaten dira, egunerokotasunetik ateratzen direnak. Saiatzen gara horrelako albiste ezberdinak plazaratzen.

**Aurten, gainera, GOITBko programazioak ez du etenik izango...**

Hala da, bai. Albistegien kasuan, abuztuan, egunero bizpahiru albiste kaleratuko ditugu eta, horiekin batera, azken hilabeteotan landutako albiste eta erreportajeetatik ateratakoekin osatuko dugu albistegia.

**Etxera iritsitakoan, telebista aurrean denbora asko egiten duzu? Zelako saioak atsegin?**

Egia esan, denbora faltagatikedo ez naiz telebista ikusten egoten. Eta aukera daukadanean, askotan, ez dut ikusiko nukeen saiorik aurkitzen... *Goenkale* jarraitzen dut ahal dudanean, *Mihiluze* ere bai, eztabaida saioak eta albistegiak....

**Eta zer kenduko zenuke gaurko programaziotik?**

Txumutxu saioak ez ditu batere gustuko. Gaur egun, edozein agertzen da telebistan, bere bizitza pertsonala kontatzen, eta gehiegizkoa iruditzen zait.

**Udan, lanetik erabat deskonektatzea lortzen duzu?**

Bai. Aurten, Austriara, Tirolera, joango naiz, *Heidi* marrazki bizidunetan agertzen ziren mendiez eta paisaiaz gozatzera.

**Aste bukaerako plan on bat?**

Mendi buelta bat eman eta ondoren afaritxo bat edo juergatxo bat...

## asteko hitzorduak

### Erakusketa



OÑATI

**> Gari Garaialde argazkilariaren erakusketa Gaztelekuan**

*Ametsak besarkatuz* izenburuko erakusketa jarri du Gari Garaialde argazkilari hondarribiarrak Oñatin. Surfaren gaineko argazkiak Gaztelekuko kuboan izango dira ikusgai, uztailaren 22ra arte.

### Zinema



ARRASATE

**> 'Las vacaciones de Mr. Bean' filma egubakoitzean, Monterronen**

Udako zinema programazioaren barruan, egubakoitzean, hilaren 20an, *Las vacaciones de Mr. Bean* emango dute Monterronen, 22:30ean. Hurrengo astean, hilaren 27an, *Nömadak Tx* eskainiko dute ordu eta toki berean.

### Musika



BERGARA

**> Santa Marina eguna ospatuko dute eguaztenean, uztailaren 18an**

Santa Marinako jaiak ospatuko dituzte Bergaran. Eguaztenean, Santa Marina egunean, meza nagusia izango da parrokian, 19:00etan. Mezaren ostean, Bergarako Aritzeta abesbatzak (irudian) emanaldia egingo du.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Debagoieneko kostako sardinak

Beroa izan da nagusi aste bukaeran; batek baino gehiagok aprobetxatuko zituen egun hauek hondartzara joateko. Edo jairik jai ibiltzeko! Giroa gauez irtetekoa izan da, duda barik!

Antzuolako jaietan, **Sarasua**, **Mendiluze**, **Mendizabal** eta beste hainbat bertsolari ibili dira futbolean jokatzen; eta, **Lizaso** entrenatzaile lanetan… Realak behar duen entrenatzailea izango ote da?

Elgetan ere futbolariak elkartu ziren, batzarra egiteko lehenengo eta bazkaritarako gero. Batzarrera, baina,

**"Elgeta futbol taldeko batzarrera ez zen inor agertu; bazkarira, berriz, 22 lagun joan ziren"**

ez zen inor agertu. **Iraitz Bolinaga** eta **Oxel Erostarbe** entzule barik geratu ziren; bazkari orduan agertu ziren beste guztiak, mahaiaren ingurura.

Egun hauetan, **Arantzazu**n, bakearen inguruko jardunaldiak egiten ari dira. Ingelesez egingo dituzte. Nork esango zuen Arantzazun ingelesa entzungo zela!

Orain, gainera, turismoa dela-eta, gero eta gehiago entzungo da. **Arrikrutz**eko kobak Gipuzkoako turismoaren motorra ei dira. Eta, barnealdeko turismoa eta itsasoko turismoa parekatzen dabiltzala ere esan dute. Hala, jaiak ere berdinak egiten ditugu. Datorren astean, Sardina Festa egingo dute Oñatin. Non harrapatutakoak izango dira sardinak? Usakon? Auskalo!

## asteburuko albuma



**Bertsolari eta bertsozaleak, futbolean.** Antzuolan, Estalan, elkartu ziren egubakoitz arratsaldean bertsolari eta bertsozaleak; ez bertsotarako, ordea, futbolerako baizik. Hogeita bi urtez jarraian antolatu da partidua, Antzuolan, ia gehienetan. Aurtengoa izan da azkena eta, berdinketaren ostean, penaltietan bertsolariak nagusitu ziren. Ondoren, denak elkartu ziren afaritarako Trekutz elkartean, eta aprobetxatu zuten urte hauetan guztietan eurendako afaria gertatzen eta antolakuntza lanetan jardun dutenak eskertzeko.




**Gazpatxo jaia .** Beroari aurre egiteko, edari freskagarri moduan hartzen dute Extremaduran gazpatxoa. Domeka eguerdian, eguzkiak gogor jotzen zuen Arrasaten, eta bertako Corazon de Encina extremadurar elkartekoek gazpatxoa banatu zieten inguratu ziren guztiei. Guztira, 40 litro pasa gertatu zituzten elkartean, eta jatekorik ere ez zen falta izan mahai gainean. Gainera, zapatuan, elkarteko bazkideek opor aurreko bazkaria egin zuten hainbat lagunekin; saiheski-jana izan zen, oporretara gogotsu joateko.



**Trianako jaiak.** Oñatin, Triana auzoan, jaietan izan dira asteburuan. Egubakoitzean, zirko txinatarra ikustera, jende asko gerturatu zen auzora, eta Madalena eta Triana auzokoen herri kirol lehiak ere izan zuen arrakasta. Trikitilariek lagunduta, poteoan ere alai ibili ziren Trianakoak. Auzotarrek esan digutenez, zapatuko gau giroa ere polita izan zen, eta erromerian, jendea dantzara animatu zen. Domekan, berriz, auzo bazkarian, 75 lagun elkartu ziren ,eta arratsaldeko antzerkiarekin eta gaueko erromeriarekin amaitu zituzten jaiak.




**Santa Marinako jaiak.** Arrasateko Santa Marina auzoan, egubakoitzetik domekara bitartean, jaiak ospatu dituzte. Egubakoitzeko kontzertuan, gazte eta heldu rock doinuak entzutera joan ziren Makatzenara. Egunez, umeek gozatu zuten, batik bat, zapatuan, Gorritiren animaliekin eta apar jaiarekin, eta gauean, Cristal orkestraren doinuek ere erakarri zuten jendea plazara, dantza gutxik egin zuten arren. Domekan, paella eta gazpatxo usainez bete zen Santa Marina, eta Nuevo Talismanen doinuek esan zieten agur jaiei, gauean.



**Familia ospakizuna.** Arrasateko Barrena-Berezibar familiako hiru belaunaldik lehen aldiz topaketa egin zuten uztailaren 7an. Arrasateko San Balerio ermitan meza entzun ostean, Arteaga jatetxean elkartu ziren bazkaritarako. Familia giro politean egon ziren guztiak, eta datorren urtean gehiago eta hobeto ospatzea da euren gogoa.

## hildakoak

- **Maria Gomez Acedo.** Oñatin, uztailaren 13an. 75 urte.
- **Juan Cabello Sanchez.** Arrasaten, uztailaren 13an. 83 urte.
- **Esperanza Uribarren Liziaga.** Eskoriatzan, uztailaren 14an. 85 urte.
- **Dominga Vergara Guridi.** Oñatin, uztailaren 14an. 83 urte.
- **Paquita Mujika Alustiza.** Bergaran, uztailaren 15ean. 83 urte.
- **Pedro Plazaola Gantxegi.** Bergaran, uztailaren 15ean. 90 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**

## zorion agurrak


ARRASATE
**Ane Santa Cristina Jausoro**
Uztailaren 12an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, familia guztiaren partetik!


ARRASATE
**Herminia Jurado**
Uztailaren 13an, 85 urte. Zorionak, *superabuela*! Bilobak.


OÑATI
**Galder Duran Nafarrete**
Uztailaren 13an, 2 urtetxo. Zorionak, familia eta lagunen partetik!


ARRASATE
**Maddi Etxabe**
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak, Asier, Aitor, Mikel eta etxeko denen partetik!


ESKORIATZA
**Jon Regaño**
Uztailaren 14an. Katxi-Zorixonak, Zeke! Zorionak, Katxi Buru Konpartsakuen partetik! Zalaue!


ARETXABALETA
**Ainhitz Larrinaga Aranburu**
Uztailaren 15ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, aitatxo, amatxo eta, bereziki, Jokinen partetik!


ARETXABALETA
**Pedro Zubizarreta Isasmendi**
Uztailaren 15ean. Zorionak eta urte askotarako! Patxo haundi bat familixa danan partetik.


ARRASATE
**Bingen Aranzadi**
Uztailaren 16an. Zorionak, Pottolo! Patxo erraldoi hiru, Martxel eta etxekoen partetik. Paaaaa!


ANTZUOLA
**Cynthia Fresno**
Uztailaren 16an. Zorionak, Cyn! Zure Kuadrillakuen partetik. Oso ondo pasa eguna! Muxuak.


ELGETA
**Leire Azkarragaurizar**
Uztailaren 17an, 14 urte. Zorionak!


ARRASATE
**Juan Mari Iparragirre**
Uztailaren 17an. Zorionak Arrasate eta Aretxabaletako familiaren partetik, bereziki, Jokin eta Ainhitze.


OÑATI
**Aritz Agirre Galdos**
Uztailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasa eguna!


ARAMAIO
**Oihan Azkarate**
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak! Aitatxo eta amatxo eta lehengusina Lide.


ANTZUOLA
**Aiora Legorburu Rodriguez**
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak, Aiaia! Amaiur ta beste danen partetik.


BERGARA
**Aritz Rodrigo**
Uztailaren 18an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Ama, osabak, izebak eta Iraia.


ARETXABALETA
**Beñat Larrañaga**
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, aitatxo, amatxo eta Jokinen partetik.


ARRASATE
**Laura Garcia**
Uztailaren 19an, 2 urte. Zorionak! Gurasoen partetik.


BERGARA
**Malen Sampietro**
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, maitia, etxeko guztion partetik.

# ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!


OÑATI
**Idoia Arregi**
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, kuadrillakuan partetik!

## jaiotakoak


**Jone Aranburuzabala Loiti**
Arrasate > 3,800 kilo. Uztailaren 8an. Gurasoak: Izar (Arrasate) eta Miguel Mari (Arrasate). Argazkian, umea, izeba Dorletaren besoetan.


**Lander Cebrino Borrego**
Aretxabaleta > 3,700 kilo. Uztailaren 9an. Gurasoak: Anabel (Aretxabaleta) eta Juandi (Aretxabaleta). Argazkian, haurra, amaren besoetan.


**Maite Errasti de la Maza**
Bergara > 3,100 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta Ander (Elgoibar). Argazkian, haurra, aitaren besoetan.


**Miren Gabilondo Aristi**
Bergara > 3,010 kilo. Uztailak 10ean. Gurasoak: Irene (Soraluze) eta Erkaitz (Bergara). Argazkian, umea, ahizpa Nora eta amarekin.


**Manex Iñurrategi Lasagabaster**
Eskoriatza >2,950 kg. Uztailaren 11n. Gurasoak: Ane (Arrasate) eta Alberto (Aretxabaleta). Argazkian, umea kuman.


**Eider Arias Axpe**
Aretxabaleta > 3,800 kilo. Uztailaren 12an. Gurasoak: Mireia (Aretxabaleta) eta Juanjo (Aramaio). Argazkian, umea, aitaren besoetan.


**Iago Garcia Guerrero**
Aramaio > 3,425 kilo. Uztailaren 12an. Gurasoak: Rosa (Aramaio) eta Manuel (Aramaio). Argazkian, umea, anaia Dabid eta lehengusina Arianarekin.


**June Kortazar Valgañon**
Arrasate > 3,300 kilo. Uztailaren 13an. Gurasoak: Arantxa (Arrasate) eta Igor (Eskoriatza). Argazkian, June txikia, kuman lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-07-16

**Eduardo Zubiaurre** > Adegiko presidentea

# "Izerdia botatzen dut estresa kentzeko"



**ZUBIAURRE** Egubakoitzean egon zen Arrasaten Eduardo Zubiaurre. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

**Enpresa gizona da Eduardo Zubiaurre. Ikasketak ere, enpresa mundukoak egin zituen, eta lehen soldata etxeko enpresan irabazi zuen. Egun er,e hantxe egiten du lan, Eibarko JAZ lantegian. 2006ko ekainetik, Adegiko presidentea ere bada.**

**Asko bete zaizu agenda Adegiko presidentea zarenetik?**

Bai. Konpromiso gehiago ditut orain. Hala ere, orain arteko esperientziaren balorazio baikorra egiten dut.

**Zein da alde txarra?**

Denbora gehiago eskatzen didala lanak.

**Badirudi dena asmatuta dagoela mundu honetan. Ze produkturen enpresa zabaldu dezake edozeinek?**

Enpresek gizartearen beharrei erantzuteko produktuak egiten dituzte, eta gizakiaren beteebeharrak mugagabeak dira. Beti dago zeozer sortzeko. Onena izaten da gizakiak zein behar izan dezakeen aurrikustea eta produktu hori egiten hastea.

**Estresatuta bizi zara?**

Egun batzuk beste batzuk baino gogorragoak dira, ardura gehiago izaten direlako. Hala ere, bakoitzak bere burua nola antolatzen duen da kontua.

**Zer egiten duzu estresa gainetik kentzeko?**

Izerdia bota. Pilotan ibiltzen naiz lagunekin, eta korrika egitera ere joaten naiz, batzuetan.

Elgetan antolatzen dituzten pilota txapelketetan ere hartu izan dut parte. Telebistaz ere jarraitzen dut pilota.

**Eta tourra?**

Ikusi dut, tarteka, baina ez dut asko jarraitu. Porrarik, adibidez, ez dut egin; hori egiteko, txirrindulari bakoitzaren egoera zein den jakin behar da, eta ez dut hain gertutik jarraitzen txirrindularitza.

**Badakizu zenbat traje edo gorbata dituzun?**

Ez, asko ditudala bai, baina ez dakit zenbat.

**Askotan kendu izan dizu loa Realak?**

Pena izugarria hartu dut mailaz jaitsi delako. Athletic ere jarraitzen dut, hala ere.

**Ingelesa da oraindik negozioen hizkuntza ,edo txinera ikasten hasi behar gara?**

Bai, ingelesa erabiltzen da gehien enpresa munduan. Txinan ere, ingelesa erabiltzen dute, baina ez dago gaizki hizkuntza hori ikastea ere. Enpresa munduan lana egin nahi duen edozein gazteri ere esango nioke hizkuntzak ikasteko, zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto.

### TEST-A

**Herria:** Eibarkoa naiz, baina Elgetan bizi naiz azken 18 urtetan. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Enpresako ikasketak egin nituen Donostian. **Zaletasunak:** Futbola eta mendia. **Ikasle garaia:** Ona izan zen, baina egungo bizitza ere ona da. **San Ferminak:** Gaztetan, joan izan naiz, baina azken urteetan, ez; entzierroak ere ez ditut ikusi, ordu horretarako lanean egoten naizeta. **Telebistan zer:** Albistegiak, filmak eta kirolak, batez ere.

## www.goiena.net

**Konforme zaude orain arte Debagoienean udan egiten dabilen eguraldiarekin?**



| Bai | Ez |
|---|---|
| %50 | %50 |

## biharamuna

**Iñigo Biain**

### Udako abestiak eta lapur globalak

Udako oporrak bertan dira, eta udako abestiak irrati emisorak hartzen hasi direnez, Espainiar Sortzaileen Elkarteari eskaini nahi dizkiot datozen hitz hauek. Izan ere, lapur lotsagabez osatutako elkarte ilun hau, **Ramoncin** eta antzerako buruek gidatua, lapurreta masibo eta legal baten antolatzaile eta onuradun nagusia da.

Bai, lapurreta diot, hitzaren esanahi osoarekin. Alde batetik, kulturaren joan-etorri askeari mugak jarri nahi dizkiote lehen urrats bezala, ondoren ate guztiak ixteko (begira bestela Interneten gertatzen ari dena P2P sareekin). Bestetik, euskarri digitala erabiliz eman zaizkigun erraztasunak kanonizatu nahi dituzte (eta lortu dute). Ez dute ikusi nahi, artista "handi" gutxi batzuen onura eta aberastasunak defendatzearen izenean, artista "txikiak" (gehiengo absolutua) zanpatzen ari direla kanon madarikatu horrekin.



Kultura ezin da eurotan zenbatu, eta are gutxiago elite batek kontsumitu dezakeen produktu bilakatu. Beraz, gera zaitezte zuek zuen udako abestiekin, eta utziguzue kultura herri xumeari, benetan kultura kontsumitzen dugunoi.

## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +14 | +26 |

Tenperaturak nabarmen egingo du behera. Ostarteak eta hodeiak tartekatuko dira. Hegoaldeko haize ahula ibiliko da.

www.euskalmet.euskadi.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4…Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu…Ansar | ANSAR
Hartu…Argentinarra | ARGEN
Hartu…Mexikarra | MEXIKO
Hartu…Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.IZENA. ZENBAKIA — OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA — BILBAO.IZENA. ZENBAKIA — REAL.IZENA. ZENBAKIA

ANOETA1 — MENDI2 — ARCO — SADAR1 — IPURUA — EIBARPOOL

BELAK — ZORI3 — IKURRI3 — POPATIK1 — AIZKORAK — ADARIAK
ZORI1 — ZORI4 — KALABERA1 — POPATIK2 — EGUZKILORE3 — ELORAN
TOPA — TITULUA — MUSKARIA — SATANAS — ARRANAK — IDIAK

OHARRAK
**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri** Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora / * Vodafone: deitu 123-ra / * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.